

61. **Gose denaren ez da ogi gogorrik**

Gosearen kentzeko lehenago gehienek uzta zuten go-goan eta erranak zion.

86. **Lantze onak
uzta onak**

Gero Izadiak lagundu behar, noski, uztak izaten.

102. **Negua elurte
Uda ogite.**

Ez zaigu ahaztu behar, hemeretzigarren mendearen azken berrogeitahamar urteetan, goseteak ezagutu zirela Iparraldean, eta gero ere, etxadi batzutan haurrek ez zutela beren gosera jaten, "arraultze bat hiruren artean jaten gini-zün" entzuna dugu Luxia Lohidoy-ri Ligin. Halere, lagunez gaizki ikusia zen langile txarra zeren: Irigaray-ek dio **"Auher eta gormant / ezin izan gizon galant"** eta Intxauspe-k

89. **Langile gaixtoa
lehenik jatera,
azkenik lanera**D. **Hotz ta bustiak**

Goseaz kanpo osasunaren etsaietan haundiena bustiak izan zitekean edo berdin beroa ta hotza arerio horregatik zioten:

48. **Euri ala eki (eguzki)
hoala kapareki**

Osasun aholku lege har dezakegu atsotitz hau, baina, ekintzarako irudia lez ere:

117. **Ur geldian ez ezar (ipiñi) oiñik ez eskurik.**

Nola nahi euriaz da axolatu beharrenik, euritakoa beste norbaiti eman gabe:

59. **Goizeria denean gorri
ezterrera euritakoa nehuri.**E. **Eritasun ta sendagileak**

Gaitzak ez dira gehiegi aipatzen, batek dirudi zerbait bil-dur ta izu sortzen zuela, **erotasunak**.

33. **Egik lekü aizeari
halaber eroari.**

Eta arrazoiak ere zehaztu egiten dira, beste atsotitz bate:

47. **Eroa etxerat hartü
etxea galdü
eroa begiratü (gorde)**

Sendagilea, ospe hobearen irabazten ari dela ez dirudi

10. **Atxeterrek xahutzen (garbitzen) gorputza
apezek arima, abokatuek moltsa...**

Jüsef Egiategi ehun urte goizago 1780.an gogorragoa zen ziolarik:

**Atxeterrek hilherriak bizkartzten
abokatüek mosak ordokitzen**

(Mosde Etxeberriren gogamenak, arg. gabea)

Halere gaitzak nondik heldu diren parabolaz zioten

27. **Xakur alferra, kukuzoz beterik.**

eta zuberotarrago Irigaray-ek

Hor flaküa, oro küküso

BESTE SENDAKETAK**1. HIDROTERAPIA**

Hidroterapia gaurko sendakuntza ez-tia?

**1.1. Joanes ETXEBARNE "Etxexuri"**

Aintziñako sendabideen berritzapenean, orainarte Zuberoako urena ez zen gogoetan sartu, eta emeki-emeki urleku ta bainuak galtzera zoatzen. Duela bospasei urte eta duela bi urte "Herri-kontratu" delakoan inguruan gure probintzi hunetako, izadi aberastasunez egin zen pentsamenduka, bilera, eztabaida: azkenik, beharrezkoen hautatzeko, ezen gure mendi eskualde hau osoki hustutzea ez baitugu utzi nahi. Dirua frantses gobernuak, baina herriko taldeek eman zezaketen dossieretan onartuak izan direnak obratzeko. Halaxe gertatu da, Zuberoako senda-uren baliapenerako egin zen eskaria, eta hain zuzen "Ziberoako botza" deritzaion euskal irratian, orain aldatzera noan elkarhizketa entzun nuen, Ahüzkiko azken ostatzuzainak, Martxel Bedaxagar-ekin hitzegiten ari zelarik.

M.B. Eta zoin da sindikataren, Ziberoako sindikataren politika, ütürrier büüz?

Herri kontratü horren üngürüan biltzen hasi ginelarik bereala agertü zia(n), sendotzeko erabili ziren ütürriak ez günütüala galtzera ützi behar, gure mendietako hontarzüna zela "hura". Oroek kontzentzia hori baginia(n), bena nuntik has etxakin. Azkenean baliosenak, ezagüenenak behar gün-tüala berritü, deliberatü ginea(n): hots Jun Dane Juhanen ütürria Leixtarren eta hebenko Ahüzkikoa, mendian, eta Mauleko Jon Dane Petiri-rena.

Zonbat kostatu zaizue?

Gaixoa, badik aspaldi egin behar zela, bigabostetan izan dük, egitekotan eta beti gibeltzen, alegia ez zela aski sos, edo batere sosik: ez zia(n) borontaterik: orai aldiz gaüzak hobeki joan dütük, aski sos üken diagü eta ederki eginik izan dük.

Sindikatak lautanhogeimila libera (40.milioi pta.)

Herrienarteko Sindikatak (S.I.C.) delakoak ere berrogei mila libera (20.milioi pta.) eta gobernüak, nolazpait ondarra eman behar dik.

Hori dük nonbait Ahüzki kontüa. Gero badakik Andere Dena Mariáz jente hanitx biltzen dügüla "Artzain besta"la eta eüskaldünak haboroenak; ordüan egin diren berritzapenak ikusirik, arauz, urtean beste zonbait aldiz jinen dütük. Igantez, baditiagü üsü hirurgerren adineko eüskaldün zaharrak; gero bedeziek behar liküe jarraiki, eta lehen bezala Züberoako huretara jenteak igorri, ez deprüetan gainti alegia, hurlekü handiago heetan bedezi ezagün eta lagünak beitütie.

Hik hire parte eginik dük?

Bai ahal düdana egin diat, bena ez gütük heltzen mente hatsarreko arrakastala eta Xixili, ta Etxe Xuria ziren denbora-koala. Ez dakiat hebertik aitzina, mente berrietan Ahüzki bidea, orhit etxekiren düenez.

Errazü Joanes Etxebarne ez düzüa arrabotea (frontoia) berri-tü?

Bai hori ere egin diat, mürüa erdiratürik eta erori abantxü beit zen. Ez diat dolü beita arizale. Gero, ihizearen sarsoian, orai, ihizlariz beterik diat hotel, artzain etxoletan ez beita aski lekü. Hura dük haatik ene Ahüzkin izateko arrazoa.

Ene gain badiat hotela berririk eginik, eta ostatüa bena dakizüen bezala ütürria ez beita, kantüan, ondoan goraxago eta alde gainean baizik, han zütian berritzapenak egiteko, itsuski beitzen: bürdün broketa dütxülü gisa eta hura mürü zimentatü batetarik jelkitzen, jargiarik, jarlekürük ez, eta kabaleen hürüntzeko bürdün kereta itsusia (ikus argazkia, 1935.koa, Txomin Peillenen bi osaba "hurzaleak" bi bazterretan)

Lehendani horik oro ezdeusten ari zütia(n), mürü tzar hurak oro jauzerazi ditüe, eta hürüntxago üngürüan harresi ejerragoa egin diküe, kabaleak sar ez ditian. Hola alde barnetik plazattoa xahüki dük eta orotan jargiak baditiagü. Hura kaneta batetarik jelkitzen, Züberoako lehoa zizelkatürük dian harri baten petik eta alde petik harrian ezkibatürük direlarik, kantore zaharren lehen hitzak

Bortian Ahüzki
hur honak osoki..

Eta lehen bezainbeste jente jiten dea?

Nola erran behar da: lehenago, laur etxetartino izan dük, bazüan lekü egoiliarrentako, orai nihaur nük (bakarrik) ordüan ez dük lehen bezainbeste jente egoiten.

Lehen bi hilabeteren edo hilabeteren igaraitera horra zütian zonbait, orai ez hainbeste, nahiz aski jente badügün hola. Beste jenteak hur bila jiten dütük, jerrikanak betatzen ditüe eta etxera eramaiten. Hola igaraille hanitx badük, zonbait aldiz apaidü egile gure etxen, ez egoile ez beita lekürük.

Eta zerenteko eramaiten düe hura?

Gaixoa, zonbaitek aski edatez, gisala, gültzürinetako kal-külak edo harriak galerazten beitütie, operatü gabe; nik uste harririk ez düener ere hon egiten deiela hur edatez ez beitzai jiten. Orai, ütürria hobeki antolatürük hur-biltzale horietarik, haboro badükek segür, bena heben egoiteko lekü haboro behar liküe.

Eskerrik hanitx Etxebarne, Ahüzki huretara hotelzain hizana!

(Züberoako botza, Urrietaren 31.a, 1988.an)

1.2. Bigarren lekuko, "La République"ko kazetalaria.

Hona Paueko egunkari horrek nola aipatzen duen

"Ahüzki iturriaren berritzapena, Altzürükün"

(Gure itzulpena)

"Lekuko hontasunen baloratzeko" batzordea, Bigarren herri kontratuaren kariatara sortu zen Maule, Agerrian, biltzar nagusia, beste guztien gisa ekintza eskaintzak aurkeztu zituen: Züberoako berezko aberastasunen ezaguketa, artzain lurak, ura - arraindegiak antolatzea, ur bero ta ur edatekoak - eta meatzak.

"Bereziki urei buruz Züberoako iturri ezagun guztien inbentarioa egitea erabaki zen, baita gaur gehienak ixita dauden bainu ta edanlekuak ere ikusiz.

"B.R.G.M. (Geologia ta Meatzetako Ikerketa Bulego) delako taldetik etorri teknikalariak Maule, Leixtarre, Garaibi, Ahüzki, Gamere, Ligi-ko uren harpenak eta ikerketak 1986.ko maiatzan egin zituzten. Gero, aski kurrituak diren iturrien berritzapen aurrekontu ta langai bat egitea zen erabaki.

"Mauleko hiriak Jon Dane Johane ta Jon Dane Petirir-ren iturriak berritu zituen ezkerre, batzordeak Züberoako bere mendi ingurunean dagoen Ahüzki iturri ospetsua egitean bere indarrak ematea erabaki zuen.

"Egingaia gertutzeko "Lauburu" arkeologia taldeko J.C. Labat zuzendariarekin, eta besteekin bilkura, eztabaida izan zen; gero Züberoako sindikatu batzordeak jadanik, mendikaldetik iturriaren artatzeko obrak egin zituelarik eraikuntza lanak Altzürüküko Letchauregui enterpresari eman zitzaion eta Mauleko Dubourdieu hilharri egileak, iturri harria zizelkatu.

"Joan den asteazkenean (1988.11.2) kontratu batzordeko ta Züberoako Sindikatu batzordekoak, beren buruzagid den F. Duboscq-ekin iturria inauguratu dute.

"Ahüzki ingurune miresgarri hortan uzaleek, mendiari begira, leku babestua, atsedean hartzeko egokitua topatuko dute. Badirudi sortzaileen asmoa, obra egitean apur bat traditua izan dela, haiek nahiago baitzuketen obra ez hain geometrikoa, inguruko arkaitzeekin harmonian. Denboraren higadurak gauzak hobetuko ditu, eta ikutu txiki batek halanola oasis erakarkarriagoa eginaz, zuhaitz batzu landatuz.

"Bukatzeko errepika dezagun Iturrian idatzi egin diren hitzak, bai betirako irarri direnak

"Bortian Ahüzki hur honak osoki"

(La Republique des Pyrénées, 1988.11.9)

Oharra: artikulua izengabea.

1.3. Petiri AGUER

Zihigan ere bada (Petiri Agerre-k dionaz) iturria Donibane ermitaren ondoan eta hara Jaun Dane Johane, goizean Leixtarren bezala jendea aurpegiaren garbitzera, eskuen xahatzera eta ur apur baten edatera doa, goizean goizik eta barurik, urte guztian osasuna izateko ta bereiziki min oiñazetik ez pairatzeko. Gameren ere diote Jon Dane Johane goizeko ihintzak buruko minak sendatzen dituela.

Goian aipatu iturriaren ura ez da aztertua izan ea ez duenez bertute zerbait, ezen, han holako ermita altxatu egin baldin bazen, pagan-iturri baten lekuan egin baitzen, naski, harek aspaldian ezagutu bertutea zeukalarik. Ermita Beñat Agerre Petiriren seme ta lehengusu dugunarekin duela hogei urte bisitatu genuen, han dago Donibane-ren estatua herrikoa, ez oso zaharra ordea, XV-XVI. mendekoa halere, beraz goian Lextarreko iturriaren garaikoa.

1.4. Allande ARTIGAU "Elixagarai"

(Exkilima ütürria Urdaix-Santa Grazin).

Zoin nahi minen sendotzen behar hüa(n) Santa Grazira gaüz jin; non ere bei- hintzan eta Santa Grazira joan behar hüa(n), eta bidean deus ez baratü (topatu), oroz gaiñetik ez gatürrik, hetarik arrakontrazen bahüan hire sendotzea gal zia(n)..e'hintzan sendotzen aldi hartan.

Utürriala heltü ondoan Santa Graziko eliza zaharraren aldepean eta Salaberri altean, ixkilima bat urtuki (botatu) behar zia(n) hur hartara, eta erraiten ziean.

Santa Garazira badük bide berria
Kakoetako arrolla
Ixkilima ütürria
han beita hire sendotzea.

1.5. "Ikertzaleak" taldea

Hemen bukatzen dut ur eta iturriei buruz egin dudan inkestaxoa beste liburukian, aintziñako iturriak aipatuko ditut, eta oraingoak aipatzeko orduan, konturatu naiz "Ikherzaleak" taldea lan hortan sartua zela eta haiei itzalik ez egiteko eta lan honen ez gehiegi luzatzeko, ez ditut Zuberoako iturri gehienak ikertu, etnologiaren aldetik jakingarrienak direnak bildu ditudala uste dut, eta teknikaren, geologiaren, kimiaren albisteak dira hemen faltako, Ikherzaleak bere ikerketa egin arte behintzat. Ondotik laburki emango dugu, zein diren eta non diren Zuberoako urbero,ur hotz, edatekoak eta mainatzeakoak.

1. Altzürüküko herrian: "Ahüzki ütürria", 1000 metrotan.
2. Barkoixen "Paradis maiñüak"
3. Gamereko herrian "Gamereko maiñüak", "Lamiña ziloko ur sorgia" (iturri gazi bat, iturri bero bat)
4. Lakarri "Ibarrea"
5. Ligin "Tintüraborda"
6. Montori "Cazenave"
7. Ordiñarbe "Garaibiko maiñüak"
8. Zalgize "Mañüthürri"
9. Zihiga "Jon Dane Johane ütürria".
Aintziñako sendakuntzaz mintzo aipatu ditugu.

Jon Dane Johane iturria Lextarren (Lixarran) eta Maulen lehenago ziren maiñüak.

Zerrenda hortan agertzen diren urak XX. mendean erabili dira, baina dakigünez baiñüak ez dira gehiago hartzen. Edaten direnak bakarrik Ahüzükiko urak, eta Ligikoak gure entzuteaz. Gero ez dakigu egun batean ez ote diren berriro modan jarriko eta bainuak irekiko, baina gure iturri eta bainuak segurantzaren eskupean ez baitziren sartu, hiltorian daude.

Diplomadun sendagileentzat galdeketa

(Bazter sendakuntzez)

(Txomin Peillen-ek eredu gabe asmatua).

1. Badakizü sendabide eztiak, lehen bazter edo basa bede-zinaje zirenak, modan direla, zertako uste düzü hala den?
2. Bereixten ahal dea, erabilka horietan, balios direnak eta ezdeus direnak?
3. Balios direnetan zerk dü eragina, efeita?
 - sineskorrei gogo-sendotzez
 - ezagützen ez dügün eragina
4. Zer da zuretako placebo bat?
5. Sendabide horietan zoin dira onargarri direnak? eta zoin baztergarri?
 - danatuena
 - bizkarrean karreatzaleana
 - aztien pandula edo txilintxa
 - akupunktura, aurikulopunktura
 - kiropraxia
 - elektrizitate
 - magnetismu ta eskü-magnetismu
 - Osteopraxia
 - Oligoterapia
 - Sinpatikoterapia
 - Vertebroterapia
6. Ezagützen dütüzü, Xinako sendaküntzaz, Vernejoul ta Lecussan-en lanak, zer diozu? Behar dea holakorik sartü gure herrietan? Entzün düzüa badenez Züberoan holakorik egiten düanik.
7. Homeopatiiaz INSERM-eko ikerlariak egin lanak zoin diren badakizü. Zer diozü erremedio horiez, ez beitakigü nola ibiltzen diren? Alte zira? Badea Züberoan homeopatia egilerik?
8. Belarren erabiltea, nütena egitea, hots fitoterapia basamediküntza bezala ikusten düzüa, ala egiazko jakintza ezta da?
9. Uste düzüa eskü-sendaketa jente-magnetismak norbait senda liroiola? Hala nola doloretarik?
 - psikoterapiaz edo gogo-sendotzez
 - egiazko indar bat beita eskü zombaitetan
 - Züberoan badea holakorik.
10. Iman eta elektro-imanekin - Frantziatik kanpo - eriak üsü artatzen ditüzue. Badea holakorik Züberoan? Zer da hortaz zure üdürpena?
11. Elektrizitateak minak eztitzen, ematzen ahal dütüa?
12. Danatuari ezagütü düzüa. Ikusi düzüa haien lanen ondorio honik edo txarririk. Sendazale honak direa? Bazena Züberoan? Badea Züberoan? Igorten dütüzüea

ala igorten züntüena, kolpatü zonbait haien gana, hala nola zainhauzientako, korpitzadar anbüratüentako?

13. Txingola ta beste eritarzün horientako, alergientako eza-gütü düzüa, ezagützen düzüa orano, sendozalerik bizkarrean karreatzalerik? Erran ziniroa Jauregui bedezia-ren gisa, züen lankideak "nos confrères" direla? Igorri üken düzüea eririk haien gana?
14. Erremediatze horietan zonbaitek hon egiten badüe eta ez badakigü nola agitzen den horregatik baztertü behar dütügüa? Eta zerentako
 - Akademiak ez beitütü onartzen, Frantzian nahiz beste herrietan ezagütürik izan
 - Akademia oroek baztertzen beitütie?
 - Ez beit zirade iradokipenari fidatzen
 - Ez beitakigü korpitzean zer egiten düen?
15. Masson Éditeur, ezagunak agertarazi düan *Dictionnaire de Pharmacologie* hortan, düela hamar urte eginik, irakurten ahal da Frantzian ezagütürik diren 3000 erremedioetarik, bi mila "placebo impur" direla. Zer diozü hortaz?
16. Uste düzüa bedeziek ez düela "bedezinaje ezti" horietarik batere erabili behar?
17. Zertako uste düzü ez düela ez erakasten ez praktikatzen Ameriketan, Japonen, Anglaterran egiten direnak? Zer diozü hortaz, ez badüe baliorik Unibertsitatetako laborategiek ta ikerlariek zale ezagütüko dizüe? Ez?
18. Etxeetan ikusi düzüe züek heltü beno lehen edo züek deitü gabe zer soein, zer erabilka, zer erremedio erabilten züen? Züek aholkatü horiez kanpo berenak badi-tüea, belar, ünkünthe, herskailü, ezpal eta holako?
19. Jenteek higiene kontseilürik galtatzen deizüea?
20. Jenteek, hur, edari, onddo ta erremedio erakusten deizüea? eta Emaiten dütüea jakiteko, kozü, pozu, odo osagarriari ogenegile direnez?

2. APOTEKARI BATEKIN HIZKETAN

BIZI GORABEHERAK: Joanes LARREGLE (Biografia)

- Ene izen ta izentxiplik, LARREGLE, Jean dütüzü.
- Altzain sortürik.
- Hautzarroan ez dit eritarzün haundirik egin gero bai.
- Eskolak non egin dütüdan, Paueko ordüko Lycée bako-txean egin nitizün, gero Bordelen farmaziako ofizio hori ikasi eta Atarratzera ützüü.
- Soldadoka prefosta egin nizün...bena geroxeago gerla ere, ene ogenez zeren "Services Généraux" delakoetan bakean nintzalarik eta lehen egünetik Erizain бүрүзagi bat eta hirur kolpatü karreazale galtatü zeikünean aitzindariak - astoke-ria bat egin behar denean hor beiniz, ni aita familiazkoa gerlako aitzinetara joan. Joan bai, bena egün oroz, egüno-roz gibel, hil eta kolpatü biltzen. Erran ziküzüen "züek azkenik egon behar düzüe, kolpatüen zerbütü horrek jarraiki behar beitü, besteak lagüntüko dütüzüe itsason-dol'artino Angleterrara joan ditian. Eta hola presuner hatzamanik izan nündüzün Lilleko arrabaletan Maiatzaren hogeitaseian.

Aita familiazko gisa, sei hilabete baizik ez nizün igaran Alemanen esküetan eta gogo honez Atarratzera ützüü, ofizio-arentako deuse ikasi gabe.

Enekin batetan Juin generala hatzaman zizüen, bena hura ezkapü züzün eta geroztik "marechal" egin. Horik oro hürrun dütüzü. Gerla horrekin ikasi nüana eta ikusi nüana Norteko jentea Nordista jente bihotz on eta alagera dela, nahiz gerla izanik, han Lille-ko arrabaletan ezagütü ditit, aldiz Toulon-en eta hor gainti probentzalak elestari eder ediren ditit bena hortarik kanpo ez haietan konta.

Euskal herritik kanpo bizitü?

Gerlako eta soldadokako denbora horietarik kanpo ez nüzü hebertik kanpo bizi izan. Haur denboran Altzain, gero Atarratzen.

Zer lanpide ezagütü düdan?

Haurrean, aüzoan laborantxan - behi deitzen, bedakan eta hola - etxen ez bei-günien etxalterik bena erraiten niezün etxekoer eskoletxeala sartzean etxen beno urdazpi lodiagoa jan nüala, aüzoan. Bestelan beti farmazian.

Non eta noiz ikasi düdan ofizioa?

Diploma Bordelen üken nizün bena gero jenteen heinean jarten ikasi nizün, heen entelegatzen eta behar ere eüskara banakizün eta hebenko pentsa moldeak ezagützen.

Gero berrogei urteez erauntsi dit hortan tai gabe, eta sekulan etsitü gabe.

Zer diodan ofizioaz: sos egiteko baizik ez bada egiten zale debeatzen zira. Laster kontü arrandatzen zira zerbütü bat behar düzüla eta behar zünüela egin, gaü eta egün, kexatü gabe, pazentzia hots.

Hala nola jenteek, lehen, hasi nintzalarik uste zizüen sükar helgaitzak ez zirela gaüz baizik jelkiten. Ordüan zütü-zün arrenküratzen, berotarzüna goraxetan beita, arrenküra-tzen, txerkara jiten ez destenorean baizik, bena gaüaren minean, apairü oroz. Eta beti prest egon behar, mahainetik zütitü ohetik jeiki.

Lehen segürantxa eta sosik ez zelarik, hamarretarik bederatzük ez zizüen sosik eta epean pakatzen zizüen: prau-be zirelarik jenteak galant eta hon zütüzün, orai Sécurité Sociale horrekin ez zütie ezagützen, haborozik eta merkatü-ko saltzale bat bazina, urtean behin agertzen dena.

Orotan hola düzü, lanetik kanpo ere. Igantetan lehen alkartara jüntatzen güntüzün, bena ostaler batek erraiten zitazün, orai, meztatik edo arrabotütik jelk'eta jenteak beren autoetara igaiten direla eta alkarri deus erran gabe etxera sartzen Atarratze hau desertü düzü, Basabürüan jentea txipi-tü delarik, dena ere ez düzü plazetan ageri, paseiün.

Ezkontü nintzanez? Bai 1931.an eüskaldüntsa batekin eta hamabi haur üken ditizügü, hamar potiko eta bi alaba. Haietan hirur bedezi, eta 5 farmazient.

Nola hasi nintzan? Ene aitzinetik Bioy izan züzün gero ene heltzean Daguerre bazüzün; nik bigerren etxea zabaltü nizün, eta ez beitzakien eüskaraz ontsa mintzatzen erosleak oro idokitzen nitzoazün. Berana, saldü zitazün eta Tolosa (Frantziakora) joan beste baten merke eroatera.

Ontsá agitü züzün, etxea lekü hon batetan beitzen eta aberastü, nahiz ez züen beti langile agüdoa izan. Familian

anaia bedezi baldin bazen lehen farmazia gizona nüzü, orai Rafael Donibane Garazin dit, Joanes orijinal Madrid eta Kastilla hortan erremedio saltzaile eta hirugarren farmazienta, Mañaña, farmaziensa dizügü. Aitzinetik familian holako ganorik izan denez ez dit entzün aitetama errejent-errejentsa zütüzün..lehena bai bena ez azkena, farmazian.

Euskara beharrezko ginizün osagarri ofizioa horietan, bedeziek, farmazietan ere eta orhit nüzü nola euskaraz berrikatzera jiten zeitan Constantin bedezi euskaltzalea. Orai ez dakit euskara ari düzü gibel, euskaldünek haur güti edo bate-re ez dizüe, frantzimantek bai. Bai elestatzen güntüzün euskaraz, bena gure ofizioko gaüzarik ez dit irakurri gure mintzajeaz ez eta - egia-errateko - ezkiribatü, salbü eta zühaintzen izenez euskaraz eta lekü izenetan zühaintzeak.

Bai orai lanetik erretiratü nüzü eta gozatzen ahal nüalarik eta bakean urteen pezüak eta minbiziaren joaldi batek egoitxi nizüe, bena arauz zainak hon beinütian, berriz xütik nüzü Atarratzeko apotikari - ohia.

Elkarhizketaren giroa.

Aspaldian ezagutzen nuen jaiotzez Aozekoa den Joanes Larrègle, apotekaria; haren bezeroa izan nintzen farmazia Atarratzeko enparantzan edukitzen zueno eta harekin herriaz mintzaten ginen, beti, baina iñolaz ere abertzaletasunaz edo euskaltzaletasunaz, ezen banekien - euskalduna izan arren - gaurko mugimenduen etsai amorratua zela; beraz hasarre biderik ez genuen eta merkatu egunez maiz agurtzen nuen, baserritarren artean, beregisako propaganda egiten zuelarik. Behin, aipatu nion zer egiten nuen eta egun batean haren eritzia eskatuko niola, euskaldun eta farmazian jakitun zen ezkerero.

Beraz 1989.ko Urriaren 16 an, bere eguneroko ibilalditik itzultzen zela ta, onartu zuen nire magnetofoi txikiaren aurrean hitzegitea. Lehenik, bere buruaz eta bere sendakuntza eskarmentuez mintzatu baino lehen, nere familiaz galdetu zidan berri, eta zein nituen Zuberoako askazi guztien galde-tu; gero edari bat eskaini zidan eta bi portoen aurrean edo atzean lasaiki hitzegiten hasi ginen, Zuberoak ezagutu zuen lehenaldiaz eta oraingo denbora kezkarriaz, eta Pariseren politikatx orokorki, girotan izateko. Bere anderea etorri zitzaigun ikustera eta aurkeztu ninduen, zein zeinekin nituen odol loturak, zer egiten nuen, zertan nenbilen Unibertsitatetan eta egun hartan grabatu nahi nuenaz. Beraz ezin hobeki abiatu zen hizketa, leiho zabaletatik eguzki ederra eta ibaialdeak ikusten zirelarik, barruan altzari zahar ederrak distirutzen zutelarik.

Farmazia-gizon batekin elestan: Atarratzeko apotikari zahar-rekin.

1. Badakizü sendazale eztiak modan direla, lehen basa-bedeziak bezala, zertako uste düzü hala den?

Bai badakit Maulen Yoga, besteetan Homeopatia eta holako egiten dela. Hanitx haurkeriak dütüzü. Oraiko aizeak ekarri ditzü, biharkoak eramanen. Ez dütüzü hebenko jente haboroxientako eginik ..aizinant zombaiten..hiritarren, hurak zaiñak aidean bizi beittirade. Leheneko jenteek ez zizüen etxetik kanpo jelki beharrik erremediatze ximple horien egiteko.

2. Bereixten ote da, erabilka horietan, balios eta serio direnak eta ezdeus direnak?

Hanitxetan eta orotan bezala balükezü zerbait honik, bena sosa aisa egiteko gützia sartzen bada, adio egiazko jakitate!

Eman dezagün tisana edatea, zombaitek fitoterapia egiten düena, berri dela üdüriarazteko. Belarrek bai hon egin lirozüe bena orai kartiel hortan tisana beno haboro alkohol edaten dizüe. Besterik ere badüzü, komerzioko erremeditara hel-tü gabe.

3. Balios direnetan zerk dü feita, eragina egiten?

- ezagützen ez dügün eragina, poterea?
- sineskorrei gogo-sendotzez?

Gaxoa! Zombaitek egiazko poterea badizüe, bena ez dakit eritazün hanitxentako; orai sendazale hanitx badüzü sos egiteko ari direnak. Ba aitzinetik sinesteak ez dizü gaitzik egiten, morala etxekitzen deizü, eta sendotzen lagüntzen; üsüan sineskortarzüna sendotü ondoan baizik ez düzü jiten..gero "Malade Imaginaire" üdürimenezko eriak badütüzü.

4. Zer da zuretako placebo bat?

Placebo: "Agrada nizate", bai hola düzü agradatzea üsüan fontsik ez dizü eta heben eman dezagün erremedio berri bat iseiätü nahi düzüla, sei jenteer emaiten deiezü egiazko erremeditik eta beste seier hütsa, irina erran nahi beita, "excipient", eta hamabiak senda litezü sinesten badüe denek erremedio berria dela.

5. Sendabide horietan zoin dira onhargarri direnak eta zoin baztergarri?

Danatuak? Horietan badütüzü onak Hourmic Donapaleuko barberak danatuari igorten ziotzün mankatü eli bat. Nik orai ez nirozü eta ez nizün xüxenka egiten, bedeziek züen ikusten. Haur denboran, ene haur denboran mankatü haboroxeak danatuan ibiltzen zütüzün eta badakit orano ontsa ari direla lanean. Züberoan, aspaldidanik ez düzü züberotarrik, Salbaterra altean emazte bat ümen düzü hona..haboroenak Donapaleün zütüzün. Bena Maulen urte hanitxetan ontsa ezagützen düdan Aguerre bazüzün. Tabaila-Uzkainen zütüzün, etxea erre ziezün. Emaztea ontsa ezagützen dit Aguerrena, ene gazte lagüna düzü Germaine. Nihaurentako joan nintezü orano, harengana.

Fama handiko gizona izan düzü Züberoan Aguerre eta semeak eskolak eginik kinesiterapian ari dütüzü. Horiek "zirurjen" gaistoek beno hobeki, hanitx hobeki kausitzen zizüen menbre anbüratü, zainhauzi eta hausküra zombaite-tan.

Txingola sendozaleak? Bizkarrean karreatzaleak?

Oroek ez ditzüe gisala bizkarrean karreiatzen arauz ez beittira aski azkar; bena lehen bedezi oroek, heben gainti, erraiten zizüen

"Zoazte Arjel, Hurjüntako nausiaren ikustera"

Sendotzen zitizün jenteak txingolatik (zona) eta hanitx ikusi dit sendorik, erremediorik gabe.

Arjel ontsa ezagützen nizün eta behin ünkünte edo poma-da baten egiten ari nündüzün Laboratoire Vincent delako-

tako, gantzügilü haren formüla erakutsi niozün eta zer ezarten nuan ikusirik erran zitazün

"Ordüan nihaurek aisa egin nirozün" eta nik arrapostü

"Hortakotz zure izena emanen diot"

Asmatü nuan erremedioari Arjelina izena ezarri niozün "docteur Arjel"en ohoretan.

Gizon galanta züzün, bena ez düzü ez aberastü ez zahartü, ardoa hunegi ziozün. Behin Altzabeheti herriko emazte bati "Docteur Arjel" eraman ziezün eta eriak bere ohetik erran zizün

"Gizon mozkor bat deitazüet ekarten bedezi?" eta bes-teak ihardetsi:

"Briu (mözkor) nizanean ditit ene erremedio hoberenak emaiten."

Txilintxadün erradiestesistak?

Horik hon dütüzü bai, hur txerkatzeko, bena orai hura orotan badüzü..gero eritarzünen ezagützeko ez dakit ez ausartzen direnez..ez dit uste ardiesten düenik.

Akupunktura.

Zerbait kausitzen dizüe ezagütürik direnaz gain. Ene erre-na, hola izigarriko sinusitarekin züzün, hola txistaegile baten gana joan züzün eta berala igaran ziozün eta harek "sendo zela, sendo zela" gero hantik hirur urteren bürüan arra jin ziozün.

Züberotar bat badüzü, Ligiari bat eüskaldüna Akozoberri, txistaegile horietan famatürik, Oloruen lanean ari düzü. Gero beharri txistazale eli bat ümen dütüzü, bena ez nintezü fida, ziozüe beharriak dena manatzen eta ordenatzen düala eta aski dela beharriaren txistatzea. Hori handixko!

Elektrizitatea?

Hori aspaldiko gaüza düzü; agian dolorentako bena bakotxak etxen egite hortan ez dizü fidatü behar, nun ez den beste psikoterapia bat.

Kiropraxia?

Ez dakit ontsa zer den.

Magnetismuak?

Elektro-imanekin egiten dena, entzütea badit, ospitale zombaitetan egiten dela. Eskü-magnetismua besterik düzü. Zombaitek poterea badüzü: horietan badütüzü serioak eta janfutreak. Nik ez dit egiten ikusi. Züberoan ümen düzü.

Oligoterapia?

Bai hori ontsa ezagützen dit, bena ez likezü ahalaz, erremedio süberte hortarik baizik hartü behar.

Homeopatia?

Ez dit sinesten, ez dit egin. Holako hur dilüziõnekin erremedio herexarik batere izatera heltzen dütüzü, eta sinetsarazi nahi dizüe, zerbait hurean egon delakoz eta hantik jelki orano potere badüala.. Prefosta ez dizüe ihur ere pozoatzen. Haien egia bakotxa hau düzü "ez dela eritarzünik jente eriak badirela"

Züberoan ez düzü homeopatia egilerik, bena badüzü hazale eta Aramitzera Dr. Haller etxera joan eta harek homeopatiiaz sendotügei ditüzü eriak.

6. Xinako sendaküntzaz?

Badakit akupunktura hantik horra dela, bena ez ginikezü behar sinetsi haien gaüzak oro hon direla eta haien jakitateak oro bürüzagi; prefosta Vernejoul bezalako ikerlariek txerkatzez ikertzez beti zerbait hatzamaiten dizüe, behar ere berentako.

7. Homeopatia.

Goraxago aipatü dizügü

8. Belarren erabiltea, moda da, bena lanjerus izaten ahal dea eta beti probetxügarri, hunkiegile?

Tisanekin ez düzü segur bataren hon dena bestearentako hon datekeala. Gero ez dit uste tisana azkar batek jentea eritzen ahal düala, bena bakotxak ikasi behar dizü, emeki emeki bizpahirur ostotik, erpünta handilagoalartino belarren heinean ezarten.

Prefosta belarren gaüza horietan badüzü küriosik lehen asün-zopa laborarien erremedio zena, orai Pariseko jatetxe ederrenetan zerbützatzen deizüe.

9. 10. 11. 12. 13. Aitzinetik aipatü deitzüt.

14. Erremediatze horietan zombaitek hon egiten badüe eta ez badakigü nola agitzen den, baztertü behar dütügüa?

Akademiak eta jakintsü horiek ez ezagütürik ere - nun ez diren lanjerusegi - jenteek arauz libre dizüe debatütüa bada ere sendazale baten haütatzea. Ba, prefosta, legezko erremedioekin ez beitakigü, haboroenean, zer egiten düen banean eta debatütü zombait bezain lanjeros beira sobera hartzen delarik. Ez dakit ez..

15. Zer diozü düala hamar urte 3000 erremediotarik Frantzia kontrolazale herxian 2000 placebo zirela?

Aspaldian badakizügü, bena jenteen ogena düzü boeita saihetsean ez badüe bizpahirur izen irakurten uste dizüe, ez dela hon. Eta hirutatik bat placebo dükezü.

16. Uste düzüea bedeziek ez düela "bedezinaje ezti" horietarik batere erabili behar?

Denborarekin ageriko düzü, bena erabilka ezdeus egiten hasten bada bedezia, jakitate faltsü bati bere indarra emaiten diozü, egiazkoari ogen egitez.

17. Frantzian irakatsi eta pratikatü nahi ez direnak eta beste herritan erabiliak.

Ene ustez saldoan, beste erremedioekin balio likezüe, bena ari nüzü ez dütienez bedezi eta handi zombaitek berentako begiratzen.

18. Etxeetan, herritan, züek heltü beno lehen, ikusi düzüa zer soien, zer erabilka, zer herri erremedio erabilten zen?

Holako hanitx entzünik eta ikusirik nüzü. Bazüzün Haurren etendüra sendotzeko hirur Johanen aztikeria. Hortarako hirur gizon behar zizüen, hirurak Johane deitzen. Zühain zilo bat behar zizüen haurraren igaran arazteko. Bi gizon zühaintzearen bi aldetarik jarten zütüzün. Haurraren

etxekizaleak "To Johane" ziozün, besteak "Emak Johane" arrapostü eta haurra hartzen ziozün eta aldika besteak bardin. Haurra hirur aldiz igaranarazten zizüen ziloan eta hirur gerren gizonak Agur Maria erraiten eüskaraz.

Ziatikaren sendotzeko, Büztanobi Aloztarrak jentee aztal zaina mozten ziezün.

Gero erranen deizüt hanitxetan ez düzü erremedio beharrik jenteen sendotzeko, non ez düzün ahazten galtatzea jentee zer lan, zer arrenküra düen. Anaie bat banizün bedezi, behin eta berriz gizon bat jin ziozün ekzemaz beterik. Azkenekoz erraiten diozü, bena "zer düzü ofizioa? "Eta oihan horietan zurkari nüzü" "Badüzüa, besteak beno haboro erabilten düzün zur edo egür bat?" "Bai, bagoa." "Bagoa üt'e-zazü hamost egünez, gero ikusiko dizügü." Eta osoki sendotü züzün.

19. Jenteeek higiea aholkurik galtatzen deizüea galtatzen zeizüena?

Xahütarzüna ahal oroz irakasten giniezün zonbait fida zütüzün galtatzera - haurrentako edo hola - beste zonbait ahalkez egoiten. Beti eüskaraz eraunsi dit, jente haboroenekin, zurekin ere bai. Bena zonbaitek ez zizüen aholkü beharrik, besteak emanik ere ez zitizüen jerraikitzen - lazükeriaz, herabez - ützen.

Huren kalitatea jenteeek galta aldikal egiten nizün, Bordelera igorten niezün ikertzera. Onddoen ezagützen lagüntzen nitizün jente bakant eli bat, bena zale ahatze zitzazüt oro, ezpeinüan pratikatzeke paradarik. Gero alkoholik ez sobera edatez erraiten niezün. Behin Santa Graztar bati erran niozün: Ez düzüa ardoari hur ezarten ahal?

Ostatüan sekülan ez.

Bena ni ere hartarako doa ibili nüzü **Ustaritzeko** Jinko Txipiaren gana. Sendozale hona omen züzün. Rugby joküko short-a teiü nizün eta bi azpien artean gibel hortan banizün ekzema süberte bat, gero zanko bizkarrean beste larrümin bat, beste dermatosa bat, orano heben herexa zanko bizkarrean ageri beit dü.

Joan nündüzün haren ikustera eta hor eman zitazün nihauk egiteko gantzügailü bat, milgorra ta sofre lili azpiantako, eta zankoarentako iodalkol. Bi erremedio berheiz. Lehen minetik sei egüen bürüan sendo nündüzün, bestea sei hilabeteren bürüan orano banizün. Gero Toulon-era joan nündüzün, han lehen dermatologa batek ez zitazün sendotü ahal izan, bigerrenak alkohol iodatü eta kalomel pomadaz iraganarazi.

Gero famatzen dizüe **Donibane Garazi** hortan badüela beste Jinko Txipi bat, esküekin edo ez daki nola, eritarzünak oro sendotzen ümen dütianak. Jentee beren xerriak ere eramaiten ditizüe.. Nahiago nizezü hüllantik ikusi.

Lehenago jentee bazakizüen erremedio zonbaiten egiten - orai entelegü baten leküan Sécurité Socialeko karta dizüe - aizo zonbaiti ikasirik, zaharren ganik begiratürük beren erretak bazitizüen. Milgorra oroz gain erabilten zizüen, dolore eta larrüminentako, zonbaitek hurterazten eta belarrez keradez, edo nik dakita zerez nahastekatzen..txori belarra ere ezarten zizüen, arauz.

20. Hur, edari, onddo...jakiteko erakusten deizüea?

Kozü eta pozoetan zonbaitek aski ezagützen zizüen lehenago bena izigarri jeloskor zütüzün eta pozoen beldürrez ez

zitizüen onddo beltzak baizik jaten haboroenek (beste onddo haboroenak onddo leherrak zütüzün).

Janari teiü zonbaiten lotsa zütüzün, hala nola gorotzez edo lohiz zikintü ondoan haurrek ahoala ezarten zütienak.

Badakizü azkenean osagarriaz eta eritarzünaz gaüza hanitx badakizügü, bena beste horrenbeste ez dakizkitzügü, ordüan ez düzü estonagarri, eta ororen gaintek legeko-senzazaleek etsitü baldin badüe zük nola nahi eta erremedio, eta xixtema berrietarat arrimatzen baldin bazira.

3. ATARRATZEKO SENDAGILE ZAHAR BATEN IXILTASUNA

Aspergarria baldin bada, askotan, zain egotea, jadanik daunatuaren etxean ikusi nuen zeinen jakingarria den, egurukitza, jendeak beren artean mintzatzen direlarik, eta 1988.ko Urriaren 3 an merkatu eguna zen; goizeko zortziterditan han egonik ere, ordukotz zortzi jende zeuden zain eta hizketan pirineotar giroan ohi den legez (Parisen berrogeitahamar urteez sekulan ez dugu horrenbeste entzun). Gaur kontsultategira jinik hamaikak ta laurdenetaraino, hamalau gaixo ikusiko ditut zai: hamar euskaldun, bi erdaldu, bi biarresa. Euskara da entzutenenik, eta laister mintza-doinutik eta hiztegitik Santa Graziko etxekandere bat ezagutu dut.

- "Entzün düna Liginagako mekanizienari agitü zaiona? (mekaniko hori Santa Grazin jaioa da)..."
- "Badakiñat mankatü dela..besterik deus'ez.
- "Ez dün estonagarri neskanegüean (larunbatean) ezteiliar züñan..gaüa hola igaranik..goizan etxera erretiratü.
- "Hola üsatzen diñe gazteek, orai..
- "Bena ago .etxera hel eta oherat joan balitz.bena emaztea etxen ütirik ihizera joan dün lagünekin etxondoala..han bazkaltü..han aihaltü eta gaüan - beti lorik gabe - jeepa har' eta etxera sartü nahi izan, Bilho altearen behera (Bilho etxearen ingurutik behera) jaisten zünian, büruz behera erreka ondoala joan dün eta autoa bidean baratü..
- "Edanik zünian engoiti?
- "Ez, bidean gidatzearekilar lokartü dün gisala..
- Ez din ejer izan behar?
- Ez dün hunkirikegi..hirur saiheits-ezür hautserik, maxela zarramikatürük, soinean odoluria...hori dün txipiena, gero anka-ezürra hirur günetan hautserik din.
- " Ez zünian apür zale ibilten..orai bortxatü düken ohean pürü egoitera.

Bizpalaur "jente zahar" hasten dirade erraten, hola gazte-ria osoa behar dela galdu, beren automobilekin lasterregi ibiltzen direlako ta larunbata-igande gauetan nekea ta alkola lagun, bidetik irtetzen direlako. Daunatuak esandakoa, haren salaurrean entzundako kezka berdina dago hamazortzi, hogeitabost urteetako mutil horienganako urduritasun haundia. Gero hori kontatzen zuen, Antsodiko etxekandere ta alarguntsak dio zenbat nahi ez edanik ere batzuk hiltzen direla hala nola senarra tximinea konpontzen ari zen batean, hargin lanean, bihotzekoak hukiturik, erori zen., eta jarraitzen du, hobeki entzuten dudala:

- So'izü igaran astean küñataren ilobaren ehortzetaliar güntüzün.. Hura klinikala bazoazün haur sortü berri eta emaztearen ikustera.. Kurtsakari (korrikalari) horietarik zünian,

eta agian zaleegi ibiltzen.. bere bürüa eho din. Ez din alaba ezagütü eta hirur urteetako beste haur txipi bat eitzu din.. Ez dün hoberik hebenko gazte oroek hil behar diñe: aste oroz "Journal"etan (egunkarietan) ez dün besterik irakurtzen. Ene gazteena kanpoan delarik, harriturik etxekitzen nin..neskanegün- igante gaüetan..

Kontsultategi hortan aita seme medikuak daude, ta andere batek beste bati frantsesez galdetzen dio, ea mediku zaharrarekin ala gaztearekin igarotzen diren.. Bearnese andereak, bere ahizparekin beren hizkuntzan hitzegitea utzirik, erantzuten dio gaztearekin, ezen alargundu zelarik ta depresioan erori, Gan-eko Osasun-etxera joan zen eta handik lehen baino gaizkiago ateratu baitzen.

A..... P..... gaztearen gana joan zela eta harek erremedioak emeki utzaraziz, eta jendetasun ta hitz onekin senda bidean jarri. Gerxeago gizon batek euskaldun andere bati galdera berdina egiten diolarik, humore arin batez erantzuten dio, ez al da egia

"gazteak nahiago dütüzü zaharrekin eta zaharrak gazteekin ez da hala?"

Beste behin, holaxe egon nintzen hirur orduz, euskaldun eriak entzuten, baina orduan ez nituen oharrak hartu, hainbeste bai genuen parre egin, "eritarzünaz" eta "osagarriaz" hitzeginaz.

Egun hartan astirik ez zeukatela ta, halere mediku zaharra, euskalduna izanki ta berrogeitahamar urte hauetan Zuberoa gaindi jende sendatzen ibilitakoa, hura ikusi nahi nuen. Urtet'ardi igarota, zaharrak "erretreta hartü" edo jubilatua zela jakinik, harekin *egun ta orduak finkaturik*, uste nuen etxesendakuntzaren aldaketaz, jendeen sendaketa informazioaz eta abar zerbait jakingarri izango nuela. Baina hor porrot egitera nindoan, ezen aurretik eskola gabeko batekin lortu ez nuena, berdin eskola haundidun omen denarekin. Nire grabagailua ikusita, hasarre jarri da, eta nere galderak entzun ta ezagutu gabe, euskaratik frantsesera pasatuz esan dit:

"Je ne veux pas mettre mon nom au bas d'un tas de banalités (sic)"

Beraz gizon horrek 50 urtez ez du ezer jakingarri bizitu, ez ikusi, ez entzun Zuberoan medikua zegoela. "Ez dut nere izena arruntkeria meta baten azpian ipiñi nahi (sic)" .

Banekien ez zela erreza izango ezen urteetan departamenduko "kontseilu orokor"ean aholkulari izan ondoren, hauteskundeetan garaitua izan ondoren, hasarrekor, errea eta samina bihurtu zela, baina horrez gain honelako erreakzioak normalak dira zahartutako eta gortutako gizon baten aldetik. Etnologilari baten lana bait da gauzen argitzea, belaunaldi hortako jendeen artean ez da harrigarri jarrera hori Frantzian eta gutiengoko jendeen artean; berdin oso minbera ta bere jatorrizko kulturari buruz erdainuz beteak ikusi ditut unibertsitari gaskoin batzu (gazteï ziotela okzitanoz idazten zutelako zergatik esperanto hortan idazten duzu) eta berdin gure berriemaillea espero genuena harriduraz egon da, zergatik euskaraz egiten nuen nire lana. Egia da sendagile honek ederki dakiala euskaraz, bere beharrez, bestelan aintziña ez baitzuen Zuberoan medikuntzarik egingo, baina ez maitatzeraino, ez idazteraino, ordea.

Beraz ez dut sendagile honen izenik hemen ipiñiko ez semearenik eta beste mediku euskaldun bat gelditzen bai-

tzait, gaztexeagoa, politikarik egin gabekoa, ta "jauntxoa" ez dena haren gana joko dut. Zaharrak agian bere gogoeta sakonak emango ditu, entzun ez dituen nire galdera "azalezkoen" orde. Halabiz, hala bedi! Egin beza bere liburua.

4. SENDAGILE GAZTEA: REMI AKOZEBERRI (Biografia)

Zure izen ta izen txipiak?

Remi Akozeberrri

Nola deitzen da zure sortetxea?

"Arotxene"

Non, noiz sortürik?

1939.an Ligin

Eritarzün handirik üken düzüa haur denboran?

Haur oroen gisa, txipien eritarzünak üken ditizat.

Non eta noiz egin zünüan soldadoka?

E'nizüe hartü, hatsbahitzen nündüzün eta "asma" hori zela kausa ez nüzü ebili..erreformatü nindizüen. Bai haur nintzalarik **ekzema** üken nizün. Hurjünta **basa-bedeziak** (petrikilloak) sendotürik. Ekzema hortarik landa jin zitazün.. ez haren ogenez.

Eüskal Herritik kanpo bizitü zira?

Bai eskolatzeko, eta orano Eüskal Herriko hegian (mugan) ari nüzü lanean.

Zer eskola egin zunüan?

Ligiko eskola txipia, Pauen "Lycée" eta Tolosako bedezi eskolatik landa, Lannemezan-eko ospitalean psikiatrian egin dit, "internat" delakoa.

Ez zira ezkontü?

Ez.

Lanean?

Eüskal Herritik kanpo, lau urteez Cauterets-en egon nüzü "hur-bero" bedezigoa (medikuntza) egiten, gero laur urteez homeopatia ikasi dit eta hirur urteez akupunktura. Ez dit beste lanik egin ene gazte denboran salbü ikasle nintzalarik, sos zerbaitetan irabazteko, lan txipi zonbait.

Orai lanean ari nüzü, ützi naüen leküan - ez Xüberoan, nahiz ez hürrün - Oloronen, bena eüskaldün hanitx ikusten dit..abantxü erdiak.. Basabürü orotarik, Atarratze, Ligi, Larrañe ta Santa Grazitik jiten zitzazüt..prefosta hüillanagotik barkoixtar, eskiulatar ..gero Olorun berean ere eüskaldün franko badüzü.

Idatzi düzüa mediküntzaz?

Uskaraz ez, ezbeitakit. Tesa (tesia) "La torsion de la rate" Barearen okertzea Cauterets-eko hurberoen kalitateaz memoria egin nizün, baita haien zer teknikaz ballatzen den jenteen soenatzeko (sendatzeko).

Zer mintzaje badakizü?

Frantsesa, española, eta üskara, bena azken hortan e'nüzü izigarri trebe ene ofizioaz mintzatzeko...zerbait eginen dizügü haleikere.

Beraz eüskaraz irakurten?

Doidoia xiberotarra, kantoreak, bersetak. Behar ere gaü oroz Ligira erretiratzen nüzü eta ene adineko zonbaitekin üskaraz mintzaten.

Elkarhizketaren giroa.

Remi AKOZEBERRI (fr. grafian ACCOCEBERRY) Ligin sortu sendagile gaztea da, eta gure berriemaile den Allande Artigau "Elixagarai"en adiskide ta auzoa, beraz biak gonbidatu nituen Santa Grazira, etxera eta biak pozik etorri, biak mendian "laketago" baitira hirietan baino.

Arrats askari baten inguruan bildu ginen eta Bordeleko ardo on bati ahoa ireki, gero liburutegian lasaiki grabatu nuen etxeko supazterean 1990.eko Martxoaren 17.an. Hasieran hitzegilea, barkamen eskatu zidan euskara ez zuelako nahiko aberatsa hortarako, eta ez zekielako nondik has, bereala esan nion, idatzia neukala galdeketa bat, galde zerrenda bat niregisara jarria, hartu nituen bideetan inardesprenak izateko ez zedin kezka.

Berarekin zegoen Allande "Elixagarai" deitzen dugunak laguntzetan, zirikaxetan zuen eta ondotik oldea hartuta, goi mendietako arriskuez luzaro hitzegin zigun, hola ustegabeen bi altxor biltzen nituelarik. Erran behar da nire lehengusu Allande horren bitartekoak medikua berotu egin zuela eta ondotik erantzunak neke gabe ematen zituela.

Remi Akozeberrri doktoreari bere erranak erakutsi nizkion eta apurbat harritu zuen "hainbeste erran dūta?" ezen hain-txe bi ordu t'erdiz lasaiki egonaz, uste baino gehiago atera baitzizkion. Hona ondotik grabatu nuena orduan, bere bizitza eta jakintzari buruz.

1. Zerentako uste dūzū jenteak medikuntza eztiatara eta basa-bedeziatara hersatzen diren?

Nik uste, dohainik direla uste beitūe jenteek, erremedio sobera hartzen dūela..gure sozietateak hartara pusatzen (bultzatzen) ditizū..eta orai jenteek beste bizi molde bat..beste osagarri bide bat txerkatzen dizūe eta zaharretara ütüzūl-tzen.

Erremedio soberaz beren bürūak erdi pozoatzen diti-zūe..eta erremedio erosi zaharrak nola nahi erabilten ere; gero alopatiako erremedio horiekin ez dizūe sendotzea beti kausitzen.

Badütüzū erremedio elkarren etsai direnak eta eriek ez dizūe beti kasū egiten; gero "effets secondaires" edo behar-gabeko faitak agertzen dütüzū..ūsūan erremedio baten hartzeak ez dizū balio.

2. Uste dūzūia oro serio direla medikuntza ezti-erabiltzaleak. Bereizten ahal dea, erabilka horietan balios direnak eta ezdeus direnak?

Bai haboroenek zerbait eskola badizūe eta haboroenak (gehienak) bedezi dütüzū, bena badüzū orotarik izan dadin alopatia, homeopatia, edo nahi dūzūna. Orai fakultateetan ikasten ahal diti-zūgū zombait - denak ez - homeopatia ta akupunktura bai.

3. Eta basa-bedeziak?

Horik ez diti-zat ezagützen ez daunatuak, ez larrūminen sendozaleak - salbū eta haur denboran Arjel - Hurjūnta hura harek ekzema galerazi beitzetan.

Eta serio dira horik ere?

Zerentako ez.

Eta nola kausitzen dūe?

Sofrimentūa nola idokitzen dūen ez dakit, bena arauz eriek heetan sinesten dizūe, eta beste erremedio emaileetan ez..nik eztakit. Hartzen badüzū txingola (zona) virus bat beita hura hiru asteren bürūan bera igaraiten sendotzen dūzū, eztakit bedeziek eta basa bedeziek hobeki egiten dūenez, bena mina ezititzen eta solajutzen ahal bazaie, zer nahi gisaz, hobe. Esparantxaren emaita handi da.

Dolorea akupunkturaz igaran zenirozū.. sū bat bezala beita txingola, akupunturaren orratzak hotza ekarten diozū, bena ez dūzū hori egiten minaren gainen bena eskūko eta zankotako güne zombaitetan, "méridien" erraiten diren lekūtan. Nola nahi ebilirik ere bedeziak edo basa-bedeziak edo nahi dūzūnak horrez gain psikoterapia egin behar likezū.

4. Zer da zuretako placebo bat?

Placebo bat, psikoterapia sūberte; ordūan jenteer emaiten ziezū ogi-irinez egin erremedioak edo hur hūtsa eta heekin morala sendotzen..esparantxa emaiten..erremediotan sinesten beitu jenteak..eta jenteer - erremediorik ez delarik ere zerbait "concret" eman behar ziezū erier. Arrenkūratzen girela eta serio ki hartzen dütügūla hola uste dizūe. Ordūan placeboa kontzeptu bat dūzū ofizioko jenteentako.

Gero ez dakizūgū zelūla baten heinean erremedio batek zer egiten dūan, larriki badakizūgū zer min arhintzen edo sendotzen dūan eta hanitxetan eritarzūna zer okerkeria den ere den ez dakizūgū...pentsa zer den ordūan placeboaren lekūa. Enetako placeboa jesto bat dūzū, zūk badakizū placebo bat dela, eriak ez haleikere sendotūko dūzū.

Ez diozū gezūrrik erran, ez dūzū inganatu sendotūren beita eri hura.

5. Sendabide horietan zoin dira onargarri direnak? Eta homeopatia egiten delarik ez dūzū uste bardin dela?

Beste kontzepziona bat badüzū hor, huraren memoria. Prefosta ez dizūgū "orhimen" horren probarik..bena alopatia-ko erremedio hanitxen ez dea bardin? Diluzione hanitx eginik eta egia erran ez dūzū gaūza handirik baratzen emaiten den erremedioan, bena haleikere erremedio bat igaran dūzū hurean eta gük ez dakigūn gisa, hura kanbiatū. Bena ez dūzū placebo bat bezala. Erremedio bat zer den ez dakiten haur txipiak marranta batetik sendotzen dütüzū..angina bat egūn bakotx sendotzen dūzū.

Alopatiako erremedio hanitxek bigerren heiñeko zerak, faitak (eraginak) galerazten diti-zūe hala nola doloreak, bena eritarzūna ūsū han baratzen dūzū eta ūsū bera sendotzen.

Akupunktura ta homeopatiak korpütza dūzū azkartzen eta le "terrain" hobetzen ezen "korpützaren moldeak dizū egiten, egiten dūzūla eritarzūn hori eta ez bestea, sortzaroz nola eginik ziren.

Daunatuen entzūtea, ezür zuzentzaleen entzūtea badüzū? (Elixagarai lehengusuak)

Haur frankori egin dik axama zena gureak hola bena ez zia(n) beste orazionerik erraiten eta sendotzen zütian, "ezko-aren bertūtez", zortzi egūnen bürūan..ez arrunt ez..gero azal bat egiten zia(n) minaren gaiñen eta hura erorten zia(n) eta hola sendorik zütia(n). Ez zia(n) beste erremediatzerik egiten, gero belarretan erremedio hanitx ezagützen zia(n) ahatze beitu-tütügū.

(Berriz Accoceberrri medikuari)

Uste düzua pendüla batekin, erradiestesiaz eritarzün bat ezagützen ahal dela?

Nik ez dit sinesten sobera, ez ditizat ezagützen jente horik, bena guri aski kostarik zaikularik diagnostikoa ez dit ikusten bedezigoa (mediküntza) ikasi gabe nola egiten düen, eta zer erremedio eskentzen deien gero erier?

Aküpunktura zük pratikatzen düzü?

Prefosta dakizün bezala, hortan ere ez dizü nola nahi ari behar, eta orratz baten sartzea korpützean lanjerus lükezü, nor nahirik egin baleza. Tolosan (Frantziakoan) eskola batean: urte güziz txinoa bat jiten düzü. Hatxeirüzko (altzairuzko) orratzekin ari nüzü. Ez dit ez fantesiazko ürre edo zilar orratzik erabilten. Orai ber feitareen egiteko elektrizitatea ezarten dizügü. Orratzari elektrizitate aminibat (apur bat) ezarten diozügü, mikrovolta esküetan borogatzen, nabaritzen ez dena ere.

Elektroterapiaren muda düzü orai, bakotxak egin lezakena, aparailü batekin?

Hori ez dakit..bedezi baten kontrolik gabe e'nintezü fida.

Kiropraxia zer den badakizü?

Ez nüzü ari. Ez dakit ontsa zer den. Ameriketarik jnik zerbait düzü. Bizkarrezürrak erabilkatzen ditizüe.

6. Ezagützen dütüzü Xinako sendaküntzaz Vernejoul ta Lecussan-en lanak, zer diozü?

Izgarri ontsa akupunktura ikasi eta pratikatzen beitüt goraxeago erran deizüdan bezala.

7. Homeopatiatz INSERM-eko ikerlariak egin lanak zin diren badakizü?

Bai bena e'nüzü heekin akort..ezen aitzinetik erran bezala, erresültatak (emaitzak) hor dütüzü, entelegatzeko hon ez direnekin.

8. Belarren erabiltea, nütena egitea hots fitoterapia basa-mediküntza bezala ikusten düzua?

Ez iholaz ere..ez dit ikasi..ezbeita oro egiten ahal..bena belarren erabilpenarekin ere kasü egin behar dizü eta ez dakizügü lehenagokoek bezainbeste üsü. Hortakoz uste dit oligoterapia hobeki erabilten dügüla: lehenik korpützean zer den mensa, zer falta, behar düzü ezagütü, horren arabera erremedio bat edo jateko bat aholkatzeko. Tetanietan magnesium emaiten düzü, bürüko eritarzünetan lithium. Analisisiak erraiten deizü, hori.

9. Uste düzua eskü-sendaketak norbait senda liroiala?

Ez dakit..badüzü eta sendotzen dizüe.

10. Iman, elektroimanekin?

Hori muda bat düzü. Ez nüzü fida.

11. Elektrizitateak mina eztitzen?

Agian bai.

12. Danatuari ezagütü?

Ez, bena entzütea bai.

Entzüte badakit Agerre familiaren berri, bena basabedezi horietan bat baizik ez dit ezagütü larrüko (azaleko) minak soenatzen (osetzen) zütianak.

13. Eta txingola sendozalea ezagütü beitüzü, nola egiten züan.

Arjel-Hurjüntaren gana eraman nindizüen txipi nintzalarik; ordüan Ligin nüdüzün eta hura ere bena ez karrikan Andozeko bide sargüan, Hurjünta deitzen beitügü Lorraine ta Santa Graziko "ühaitz" horien (basa ibaien) jünta. Etxea hor zizün, bizkarrean kargatü nindizün eta baratzearen üngürüa eginarazi eta orazione zerbait erran, bena txipi nüdüzün, zer nüan? Lau hilabete.

(Entzüle den Allande Artigau Elixagaraiek hitza hartzen dü):

Lehen Elixagaraiko amama zenak sendotzen zia(n) txingola, ezkoarekin. Hire anaie ta ene kosi den Robert Peillen sendotü zia(n) txingolatik, düala berrogeitahamar urte.

Ordüan ekia (eguzkia) etzaten zen leküaz kontrarioala behar zia(n) igaran, zazpi üngürü eman minaren gaiñetik ezkoa piztürük eta ahal bezain hüllan etxekiz, eta erraiten zia(n)

zazpi txingola
sei txingola
bost txingola
lau txingola
hiru txingola
bi txingola
txingola bat
.....batere txingola.

14. Erremediatze horietan zonbaitek hon egiten badüe eta ez badakigü nola agitzen den, horregatik baztertü behar dütügüa?

Ezet..ezagütü eta "klasiketan" ez dakizügü, nola igaraiten den ..eta ni hola ebiltan nüzü Akademia ta sindikatei kasürük egin gabe eria sendotzen denaz gain.

15. Masson Editeur ezagünak agertarazi züan Dictionnaire de Pharmacologie hortan düala hamar urte eginik, irakurten ahal da Frantzian 3000 erremedioetarik bi mila "placebo impur" direla. Zer diozü hortaz?

Ezagützen dit ..ez nizü batere harritzen.

16. Uste düzua bedeziek ez düela "bedezinaje ezirik" batere erabili behar?

Ez, eta hortan ari nüzü.

17. Zertako uste düzü ez düela ez irakasten ez pratikatzen Ameriketn ta besteetan egiten direnak?

Zer nahi düzü farmazia komerzio bat düzü eta butiga egile handiek behar ditizüe beren drogak saldü.

18. Etxeetan ikusi düzua zü heltü beno lehen edo deitü gabe zer soeln zer erremedio erabilten düen?

Gaixoa, orai ezdeuskeria batentako hanitxek deitzen gitiizüe, deuse egin gabe; haur denboran ikusi ditizat gaüza zonbait, Arjel bazüzün, tisanak, ohean egoitea, salda edatea, ardo berotüa eta holako.

19. Jenteek aholkürrik galtatzen düeia jateko, edateko edo bizi moldentako?

Bai jateko kestione bai, ...haurrentako ez hanbat...higie-neari бүрүз galto güti. Nik haboroenik ikusten dütüdanak errematisma (erreume) eta depresionedünak dütüzü..gero haurrak ere bai.

20. Jenteek, edari onddo erremedio erakusten kozü, pozu direnez jakiteko.

Ez hanbat Telebisionea ta errebistak baditizüe, eskolaren arabera.

5. OSPITALETXETIK ZAHARTETXE TA ERITEGIRA

Mauleko ospitale horren idazkiak irakurriz, Paueko artxi-boan dauden horiek aztertuz, behartsuak eta jende zahar bakartuak zirela haietan sartzen XVIII. mendean, ikusten da, beste zahar ta eriak etxeetan edukitzen zituztela. Egoera honek gure egunetaraino iraun du, Atarratzeko "ospitalea" osorik eta Maulekoaren alderdi bat zahar ta behartsutegi baitziren.

Orain zahar eta gaixoen geroak bide ta irtenbide gehiago har dezake, alde batetik jendea geroago ta zaharzenago baita besteetik legezko sendakuntzari geroago ta gehiago eskatzen diolako ta azkenik zahar guztiek errenta bat daukatelako.

Duela berrogei urte lehen urrats bat eman zen, menditar gizarte hau aldatu behar zuena: jende helduek beren guraso zaharrak etxondotik kanpo "kalean" beste etxe batean biziaraziz; halere ehunekoan oso gutxi ziren kasuak - herri bakoitzean bizpalau etxe hukitzen zutelarik - eta gehienetan zaharrek beren bizia bukatzen zuten ezkondu ziren etxean; bakarrik oso ezinduak, ospitalextetara zoatzen, behartsuekin - lotsa pixka bat zeukatelarik heuren haurrek.

Duela hamar bat urte, ezinduak geroago ta gehiago ospitaleetan sartzen hasi ziren eta orduan Mauleko ospitalearen kasuan, bi irtenbide izan zen: XVIII. mendeko eritegia gorde zuten, elbarrituak eta bakarrik ezin higitu ziren zaharrentzat. Alboan Zahartetxea eraiki bixkorrago zirenentzat. Azkenean benetako eritegirik ez da izango, ez ama-tegirik gehiago Zuberoan, urte haietan. Orain gaixoak Oloroneko eritegietarat edo Donapaleukoetara doatz, eta berdin gaur ez da inor Zuberoan sortzen, Oloronen edo Donapaleun sortuak matrikulatzen baitituzte.

Azken urteetan hirur arrazoiengatik joera horrek ez du hedatzen jarraitu. Lehenik, ezkongabe zaharrak etxeetan edukitzeko "etxe-laguntzaileak" ordaintzen baititu, gure "Osakidetzak", bestetik gaixo diren zaharrentzat ere "heren laguna" edo "tierce personne" delako bati hilabete saria ematen zaio, gaixo hori etxean zaintzeko. Heren laguna, etxeko norbait da beti, eta lan bat ematen dio. (ospitaleetan ohe bat askatuz Segurantzak irabazten)

Hirugarren arrazoa ez da txikiena, nekazari guztiei - sekulan ordaindu ez badute ere - errenta ematen zaie esku-langileena baino hobea gainera: zahar asko beren baserriak ez direlarik ateratzen, ez direlarik janzen, dirua etxeko kuxan gelditzen da "etxeko probetxü", elbarri eta gaixoei ez diren bitartean etxeetan edukitzen dituzte, diru-iturri horik. Batzutan gazteagoek beren etxeetara lehengusu zaharrak,

osabak, izebak biltzen dituzte. Naski, gizartea irabazle da, zeren ospitaleak bereiziki kostakorrak baitira. Maulen badago bulegoa, "Soins à domicile" etxeko ospitale eta etxean zaharren edukitze horietaz arduratzen direnak. Hemen ere sendakuntzako beste sail batzuetan ikusten den legez, aintziñako egoerara itzultzea ez da beti irtenbide txarra eta atzerakoa. Gainera telefonuaren hedapenarekin, zaharren, gaixoen gaitzaldiak zaintzea ez da, lehen haina zaila; gure mendi goihenetan behintzat, eta bideberrien eskazia aitzaki, helikopteroa da, laister eroaitako irtenbidea.

Guk berrogei urteez ikusitakoak eta entzundakoak ez zirela nahikoak izango ta zaharrak etxeetan edukitzeko zerbitzua badela Maulen dakigularik, hanko bi anderei, ondorengo galderak egitera joan gara; biak euskaldunak dira, bata "zaharzaingoa idazkaria" eta bestea zerbitzu horren buruzagia.

Zerbitzu hau oso jakingarria da ohiturazko euskaldun sistema baten jarraipena baita.

Galdeketa aurretik prestatu genuen, Yvette-k jendeekin harremanak dituelako, alde hortatik eta Leonie-k administrari lan gehiago eta arduraduna delako, eremu hortako galdera desberdinak egin dizkiot.

Yvette Etxekopar eta Leonie Agergarai andereen ekarpenaz laburpena.

Lehenik erran behar dut, euskal etxe-sendakuntzaren jarraipena bezala ikusi dudala Erizaharzaingoa hau, ezen zaharrak etxean edukitzeko ohitura Foruan ere agertzen baitzen eta gaurko lege berriek, ustegabeen eta nahigabeen, sendotzen baitute, nahiz erdirakoiki egituratuak Parisetik.

Bigarrenik beren lanpidea maite duten bi anderekin gertatu naizela, maite, beharbada kristau heziketaz, agian zaharrek lanean aritzea gustatzen baitzaie, ziurrik horrela Euskal Herrian lan egiten dutelako, eta orozgain barreneraino euskaldunak baitira eta euskaldun jendearen artean lanean ari.

Hirugarrenik zenbaki, jakituri eta albiste aldetik, errez erantzuten badakite, eta zalantzarik gabe inardesten. Erran behar da konfidantza osoz haienganatu nintzela, Zuberoan nahikoa askazi eta adiskide dudalako, zerbitzu honen eta andere horien fama goraiatu didatenak.

Nork, norentzat.

Gaixo eta zahar direnen zerbitzu bat dago Maulen, zaharrek beren etxeetan edukiarazteko "Etxen arta" "Soins à domicile" delakoa, horiek Elkarte bat bulego batekin daukate; gero bederatzi "oinarrizko enplegatü", idazkari anderea, langileen buruzagi anderea, eta zazpi artatzaile lagun "erilaguntzale" egunero gaixoak etxean bisitatzen, garbitzen, arropaz aldatzen oiñez ibiltzen lagunxetan dituztenak. Horrez gain baina zerbitzuaz kanpo familiek edo eriek "etxe-laguntzailea" har lezakete etxeko txuriak garbitzeko, gelen egiteko, jatekoaren egiteko eta abar, edo bestelan etxeko norbait lanik gabeko "heren pertsona" "tierce-personne" ordaindua, horren egiteko zahar ezinduari.

Sendakuntza lanak, mediku eta erizain aske batzuek egiten dituzte, baina **Erizaharzaingoa** ordaintzen ditu, baita erremedioak ere.

Sistema horrek ekiditen duena da "epe luzeko" ospitalaritzea, eta naski, gaixoiari bere ingurumena ez aldatuz, bizia

luzatzen dio, ezen askotan ikusten denez zaharra ospitalean luzarako edo zahartetxean sartuta ezinduen artera, berealaxe hiltzen baita.

Gaitz motak

Nagusienak paralsiak, gero minbiziak, tentsioa alkola, eta bihotzeko minak, baina geroago ta gehiago alkoholaren ondorenak. Burutik nahasiak - non ez diren gaiztoak - geroago ta gehiago etxeetan edukitzen dira.

Adinak, sexuak, jatorriak.

Hirurogeita seietik, ehun ta bat urterainokoak dira berrogeitahamar "zaharrak". Doblea andere gizon baino, gehienak euskaldunak dira eta ordenean ohituren indarra erakutsiz:

1. nekazariak
2. fabrika langileak
3. salerosle, eskulangile
4. gobernuko kargudun
5. beste..

Gero legea denentzat den ezkerro, aberats ala behartsu izanik, denetarik bada; aberatsak ez baitira azkenak legearen ezagutzan.

Zaharrek nola eguna pasatzen.

Uzku dira kanporatzeko, etxetik urruntzeko, ez bakarrik ezinez, baina lotsaz beren beherakada ikusiko dela; gero ez dira ausartzen oiñez paseatzera, lanean daudenen lotsaz ere.

Zaharrak geroago eta nekezago irakurtzen du, burua eta begiak nekatzen zaizkio; batzu "beren kuadrilla" gorde dute-lako, lagunekin biltzen dira jateko, batzutan anderea, paseatzeko, baina zerbitzu horietako zaharrak nahikoa ezindurik dira "adin ederreko" lagunartean ez ibiltzeko. Halere urtero, berrogeitahamar zaharrek, bidaia bat egiten dute, igaz Lurdes-era.

Mauleko zahartetxea.

Egitura berria emanik ez da Mauleren esku, baina Bordeleko eta Paueko zerbitzuen eskupeko; zaharren erdiak kanpotarrak dira (Bearnesak) edo itsasaldean kokatu erdal-dunak, Pauen eta Biarritzen etxeak gain beterik baitira Mauleko bazterreara soberakinak bidaltzen dituzte. Zaharrak etxeetan edukitzen dituen zerbitzuak ez du harremanik zahartetxe horrekin ez eta ospitalearekin.

Mauleko ospitalea.

Aintziñako sendakuntza aipatu dugularik, ospitale horren kondaira kontatu genuen eta Leonie Agergaraiek eta haren lagun batek aurretik ezagutu bi sistemen ixtoria bizi-bizia ematen digu, bere gora behera eta berezitasunekin.

Jende zaharrentzat abantailak.

Ospitalean bezalako arta arruntak dituzte naski eta etxe-ko giroa, berogarria gainera. Kasu latz batzuetan halabeharrez ospitaleratu behar dute, baina ez dira egoten gehienak berriro etxera itzultzen Erizaharzaingoa sisteman jarraitzeko: Ospitalean daudenean mingarriena eta ezinjasana zaie, ohe txuri, pareta txuri, argi txuri nortasun gabekoen erditan bizitzea eta tekla munduan, hori telebista pizteko hori erizaintsa,

hori erilaguntzailea, hori argi mota bat, hau beste argi mota bat, zaharrak ez du onartzen gehiago aldatzea.

Familien abantailak.

Nekazari etxeetan bereiziki, gaur, zaharrek jubilazio pensioa daukate, ez dute dirurik ia gastatzen, eta etxe-ko norbaitek zaharraz arduratzeko diru laguntza, hilabeteko saria jaso dezake. Gero Ospitalean baldintza beretan eduki behar balute hillero, hilabetero familiakoek edota gaixoak 7.000 libera (140.000 peseta) eman behar lukete, eta Erizaharzaingoa dohanik, urrik dago.

Gero nekazari etxeetan idazten da, Forutik etortitako ohituraz etxen egoiten den aurriderak, senideak, laurden bat gehiago jabetasun duela, baina etxe-ko ahal guztiz etxean edukiz, hori gogoratzen digu Agergarai andereak.

Ageri denez, zerbitzu horrek hukitzen dituen zahar guztiz gehieneak euskal ohitura sisteman bizi dira, baina jadanik urrengo belaunaldian ikusten dira, gazteak zaharrez beste etxe bat egiten, gobernuak hala bultzaturik; eta orain arte teitatupe batean hiru belaunaldi ikustea laister desagertu liteke erabat, etxeak sendakuntzan zeukan azken poterea galduz.

5.1. Yvette IDIART-ETXEKOPAR-ekin.

(Zaharzaingoa idazkaria) (Biografia)

Nola deitzen zira?

Yvette Etxekopar, sortzez Idiart, Etxegohen-ean sorturik.

Zer herritan?

Xarrikota Gaiñe-koan, Lakarri-ren ondoan.

Nun eskolatū zinen?

Hirur urteetan Altxaiko eskolan. Hantik landa Arthez kolejoala joan nündüzün, Donapaleūra; hamabost urteetan, han, B.E.P.C. etsamena kausitū nizün, bena Lycée-ian ez nizün ahal izan jarraiki gure etxen bederatzi aurridera bei'kinen eta etxezain (maister) güntüzün. Ordüan Maulera ützüli nündüzün (nintzen) eta Jeanne d'Arc eskolan bi urteez C.A.P. bat ikasi, igaran, "employé de bureau" izateko eta hala nüzü.

Ezkonturik zira?

Bai Altxürüküko Etxekoparekin..han eginarazi dizügü etxea.

Haurrik?

Bai bi alaba baditizat.

Nun egoiten, nun bizi zira?

E'nüzü Maulen egoiten: gaü oroz Altxürükürat erretiratzen nüzü ezpeita hürünegi, egüerditan ere.

Nun eraunsi düzü lanean?

Lehenik Manex-ean Hazparnen lantegi batetan sekretari-goan (idazkaritzan); gero ber ofizioan Mauleko Paritzki kautxu egingian (egintegian) eta Mauleko koperatiba batetan. (Scobac), Etxegoihenean hobeki irabazten beinüan. Azkenik heben nüzü 5 urte huntan.

Eta heben zer da zure lana?

Ahal oroz, eri diren zaharrak etxen etxekitzea, edükitzea, frantses segurantzarentako, Sécurité Sociale-arentako merkeago beita, bestelan ere zaharrak ez dütüzü beren etxetarik nahi joan.

Zer adin düzü?

Berrogeitabat urteak atzo eginik.

Ez zira sekulan Euskal Herritik kanpo bizitü?

Ez ez sekulan..ez arrenkura ere.

Laborari etxe batetan sortü zinen eta badüzüa nor-bait etxe hartan?

Ez. Etxekoek ez zizüen berena etxaltea..eta ützi zizüen, badit anaie bat laborantzala ezkontürrik..bederatzü aurride gütüzü.

Familian zaharrik badüzüeia?

Bai etxekoak (gurasoak) Aitak baditüzü 79 urte ta amak 70. Untsa dütüzü mementoan ez dizüe gure zerbütü horien beharrik. Anaie bat badüzügü haiekin egoiten orano eta as-tean behin joaiten nitzezü ikustera. Artean baditit heekin Altzain bi anaie.

5.2. Eri-zaharrekin lanean (Erizaharzaingoa)

Zer dira, zaharrak etxen edükitzeko arrazuak?

Erran dizügü, segurantzarentako probetxü zela, zaharrak ez zirela joan nahi, bena gazteek ere onhartzen dizüe zaharren etxen etxekitzea, bortxaz ezpeitüe ospitalea ahal pakatzen; Soizü ez dizü aspaldi "gizon bat bazüzün, ez züzün ezkontürrik, ama zinez zahartürrik, eri handi eta bedezia (medikuak) ospitaleala nahi igorri eta erraiten zizün ez züla hilabete oroz behi bat saltzeko, hori beita kostatzen xahar baten ospitalean etxekitzea"

Bortxaz ere, hanitxek zaharrak begiratü behar ditüzüe bena zinez oküpatzen dütütüzü zaharretzaz familiak; bestalde, zaharrez oküpatzeko "tierce personne" edo hirurgerren jentearen saria hartzen ahal dizüe eta ez badüe beste lanik, zaharzinak bizitzeko doidoia ahal dizü irabazten. Zonbaitek ez dakizüe sos (diru) lagüngoia hori badela, bena gehienetan galtatzen direnek ükeiten (jasotzen) düe.

Bena hori Zuberako üsantxaz ez züena lehen dohaiñik egiten? Eta etxen egoiten zenari parte bat haboro emaiten?

Bai, bena lehen ospitaleala igorten zitizüen familia gabe-koak "eremütsak", eta ez züzün ahal igorten beste zaharrik, salbü eta eritarzün edo operazione llabürrentako..gero etxera.

Orai beste kontü düzü, zaharzinak hilabete saria irabazten dizü eta horrez gañ, erremedioak, erizain eta bedezi lanak dohaiñik ditüzüe, gük hortarako eta urtearentako horrenbeste hunkitzen beitügü, pakatzen gititzüe eta gure lana hori düzü.

Zük sekretari bezala zer egiten düzü?

Gaüza hanitx, gure zerbütüküo enplegatüen hilabete sariak, segurantzak, gero jenteek "aide-ménagère" edo **etxe-lagüntzale** bat hartzen badüe, üsüan gük paperak egiten ditüzügü berek ez beitaüküe nola paka, nola egin segurantzarekin, nola deklarara, ez düzü gure lana, bena ezpage-neza egin zerbütükü hau elitezü joan.

Eta zer lan egiten düe, züen zerbütüküoek?

Gure zerbütüküan zazpi "aide soignante" edo **eri lagüntzale** badütüzü osoki gük pakatürrik, gük enplegatürrik hurak dohaiñik ebiltzen dütütüzü gure 50 erien ikusten egün oroz. Igantetan, eri handienen ikusten ibiltzen düzü, bat, aldika.

Gero Leonia Agergarai, eri-lagüntzaleen bürüzagia düzü erran nahi beita **erizain** diplomak badütüala, bena bürüzagi izanik ere **erilagüntzaleak** ordaritzen ditüzü. Bederatzügerrena ni nüzü, sekretari, kontü egile, telefonian eta gorago erran deizüdan lan horien egile.

Zerbütüküo kanpo nor dütüzüe langileak?

Gük ez dizügü erizainik zerbütüküan, "infirmières libérales", beren kontüz erizain direnak pakatzen dititzügü eta haiek ditüzüe pikürak (indizioak) egiten; gero ez dizügü bedezirik enplegatzen badütüzü gurekin ari direnak zerbütüküaren kanpotik, eta beren kontü direnak. Bost erizañ badititzügü Maule üngürüne hontan eta eriek nahi düena haütatzen dizüe.

Bospasei urte badüzü hortan ari girela. Elkarte bat, "Association" gisa hasi gütüzü eta orano ere Elkarte horren bürüzagisa Gotaiñeko emazte bat düzü. Ez gütütüzü, ez, behar bezala ezagütürrik, frankok uste dizüe behar dela pakatü eta dohañik dütüzü lanak eta materiela ere, ohe, mahain, ebiltekoak, eri-altxatzekoak eta holakoak: horik ere esken-tzen badütügü, uste dizüe behar dütiela pakatü eztakizüe..eta guri erraiten badeiküe, gero, holako leküan, xahar eri bat badüzüe, ez gütütüzü harengana joaiten ahal, bereak galtatü behar dizü, berak behar dizü jin.

Gure lan handiena Pettiarrean dizügü, bena gure eremüa Basabürüala hedatzen düzü. Gero badüzü sendazale ofizioan bakotxa bere kantonamentüan aritzeko legea, bena prefosta norbaitek Basabürüküo "medikua" balin badü eta Maulen bizi, ützen diküzüe, ordüan, nola nahi ere ezpeita eria Atarratzeko ospitaleala joanen. Nola nahi ere eriak behar dizü egin galtoa (eskaria) eta hortarako bedezia edo familia gibeletik.

Euskaldün dira züen eri zaharrak?

Bai gehienak bai euskaldün, Erriegangarri düzü telefonatzen düenean..frantsesez hasten dütüzü eta "bai" hitza erraiten badeiezü entzün bazenetza, bizia aisatzen ziezü eta botzik, karraskaz, eüskaraz aritzen dütüzü.

Zer eritarzün mota düe etxetan egoiten diren zaharrek?

Usü paralisia, gainti bata hemiplegiak hartürrik zankoak ez ditüzüe igitzen edo bürütik nahasirik ere zonbait.

Bürütik nahasirik ez ditüzüe ertzo-etxetan (psikiatrikotan) sartzen?

Ez, ezpadira gaixto. Ezin egonak, ezin etxekiak bai, agitzen düzü. Bat ezagützen dit Maider M... bena harek ez dizü familiarik.

"Heben bazüzün Maulen emazte gazte bat..aita Saint Lucq-eko ertzotegian (psikiatrikoan) zizün bena hura osoki nahasirik: ez zizün deuse erraiten eta zerbaiten erraiten zeionean ez zizün konprenitzen eta manhatzen bazaio ez sinhesten..bena emazte hura haiñ züzün penatürrik aita holaxe Saint-Lucq-en aitaren ikusteaz ..ertzoen artean ..orai etxen begiratzen dizü. Bera gaüz ari düzü Donapaleün lanean klinikan ari düzü; gero ez beharrene gaüz aitaren begiratzeko baditüzü, bi alaba eta senharra.. Senharrak kasü egiten. Ohean ezari ondoan egoiten ziezü.. bena berak egünaz, goizean lo bat egin behar beitu eta ezpeita zaintzalerik **etxe-laguntzale** bat hartzen dizü neskatila gazte bat, aitaren sosekin pakatzen dizüe."

Bai oroek 70 urtez goiti etxe-laguntzale baten züzena badüzüe pakatzen düen ber.

Eta beste eritarzünak?

Minbizi zonzabait badüzü..mingaixtoa geroago eta ageriago beita, jenteak zahartzenago beitirade, gero alkoholaren ondoaje hanitx badüzü eta harek ekarten ditüanak oro. Sobera jateak emaiten dian tentsionea (odol tinkaldia). Bihotzeko eri zonzabait ere, bena mingaixtoa eta alkola nausi, paralisiez kanpo.

Badea familiarik zaharrak baztertzen dütienea?

Ez ziezü aisa, ez dit ezagützen. Haboroxiek (gehienek) etxen begiratü nahi ditizüe, laborari etxeetan bederen, gero zahar etxeetan ez dakit.

Eri handientako libürüxka hontan ikusten dit Mauleko ospitalean "eri-handi" delakoentako ohe badela, nor dira horko jenteak?

Ez ditit ezagützen..zeren aurride bat eritzen bada etxeko xaharra beste aurride bati igaraiten dizü. Gero izan behar dizü pürki, osoki berak direnak ere...bena biga ezagützen ditizat ospitaleala ezpeitira nahi üken joan..beste zonzabitek haurrak izigarri hürün joanik baditizüe eta pakatzen dizüe norbait begiratzeko ..gaü eta egün begirazale. Etxen begiratzten dütienek zernahi egiten dizüe..hun(on) dütüzü.

Zonzabait zahar badüzüe hola Züberoan?

Berrogeitahamar bat..zazpi "aide-soignante" k egün oroz bisitatürük..

Eta besteak?

Arauz hanitxek ez dakizüe..eta etxeetan dohaiñik etxekiten ditizüe.

Berrogeitahamar ohe dütüzüe eta ez zide (zarete) handitzen ahal?

La D.A.S.S. Direction des Affaires Sanitaires et Sociales (Gizarte ta Osakiteta Saileko Zuzendaritza) dizügü nausia..harek dizü deliberraten. Hasi gütützü hasi güntützün hogeitahamar ohekilan..gero hedapen bat galtatü ginizün, galto (eskari) hanitx beikünean eta hogeit ohe haboro (gehiago) üken.

Hatsarretik ehün bat galto üken ginizün, eta artean hanitx hil zütüzün igaran urtean üken ditizügü zazpi jente "en liste d'attente" (itxaron zerrendan).

Eta zonzabait hiltzen urte oroz?

Ez hanitx lauzpazortzi. Xahartzen zizkützü. Bildozen ehün eta lau urtetara heltü ziküzün, Destacan-en amagiharreba; orano badizü ehün eta bat urtetako emazte bat, aski untsa Onizepean.

Gazteenak zer adin dü?

Hirutanhogeit ta sei urteak.. Hirutanhogeietarik goiti behar dizü üken eta lehen ere eri handi badira derogazionea galtatzen dizügü eta jeneralean ükeiten dizügü, eritarzünak halako beitätie.

Zahar horiek berengisako erremediorik badüeia?

Ez diküzüe erraiten..ez dit entzün. Bedeziek eman erremedioak erabilten ditizüe, hanitxek hurak ere ez dakitzie nola har..gure lagüntzaleek prestatzen ditizüe.

Basa-bedeziak ibiltzen direa haien ikusten?

Izaten ahal düzü..ez dit entzün. Zonzabitek haleikere Jutsiko "Jinko Txipia"ren ikustera eramaiten ditizüe, ahal direlarik igitzen..beren kostü.

Xarlatanik ikusten düeia xaharrek?

Bai errelijione estakürüz jiten direnak "Témoins de Jehovah" horik, edo buhamesa bat edo beste. Bena ez dizüe hanitx ikusten salbü eta berak (bakarrik) bizi direlarik.

Zer egiten düe xüxen eri-lagüntzaleek?

Korpützaren xahütarzüna (garbiketak) egiten, ebilten lagüntzen, berriz xahatzen, bizar egiten erakasten, berak ari ditian.

Alkarrekin biltzen dututzieia xaharrek?

Bai urtean behin egiten dizügü bidaje bat. Igaran urtean Lurdan (Lourdes) izan (ibili) güntützün, autobusean, bat ahalkez autoz baizik ez düzü jin nahi izan, paralisatürük beitzen, nik ene automobilean eraman nizün. Izigarri laket izan dütüzü. Aurten, galtatzen..galtatzen noiz behar düen joan. Lurdarat arra. Ata izigarriko ebi erauntsia üken ginizün han. Ez düzü ihor ere marrantatü..deus ez düzü agitü..miraküillüa..miraküilia izan behar dizü.. Eta heen fedea..barna dizüe zaharrek gogozkaratzen dizüe..bai jentea gaixki delarik errelijioneaz orhitzen düzü..eta han kantatzen.

Eta zer harreman düzüe Mauleko xahar ospitale horrekin?

Güti, ez ditizügü izigarri alte..ez gütüzü kürützatzen bena hantik jelkitzen diren xahar zonzabait gük etxetan etxekitzen ditizügü.

Basabürüan balükezü, bai, hamar jenteen hartzeko gük erraiten dügün "hamar oheren" beharra, bena hortarako hankoko infirmiersa (erizaintsa) eta sendagileen, eta zaharren galtoak behar.

Badakit Atarratzen Ospitale bat badela, besteak ez üdüri, jenteak oro euskaldün eta ofizio bardinxkakoak izanik familia bat bezala dela.

Zerk erakarten düti eri zaharrak züen gana?

Familiek, aüzoek, berek ikusten dizüe hanitxek, berak bizitez ez düela xahütarzünen (garbiketeten) eta jatekoen egiteko agoñirik.

Azkenean ez dueia familiek abantaila, xaharrek etxen edükiz?

Bai, hori ere badüzü, oroek erretreta (jubilazioa) düelakoz eta horrez gain sos lagüngoia ezintüntako; gero eri direlarik zaharrak ez dütüzü, hirurgerren adineko klub horietan paseün, jaten, kartakan ebilten, ez dizüe sosik hanbat igortzen, etxekoitzen dütüzü, eta etxalde txipi zonzabitetan xaharrek kostü izateko partez irabazpen ziezü, errebenio ziezü. Gü ezpeikira egünorotan heekin etxekoan arrenküra.

Zertako ez dira xaharrek etxetik aisa jelkitzen, kanpon ibiltzen?

Ez düzü beti, ezintürük direlakoz edo herabez (uzkur) bena ikusten dit: gure etxekoak ez dütüzü etxetik aisa jelkitzen - nahiz egün aita apaidü hun (on) baten jaten ari den Atarratzen - izan behar dizü xaharrek ahalkez egoiten diren.

Ahalkez?

Zonzabait ez dütüzü etxetik kanpo hoiñez joaiten bena autoz lagüntürük orobat ziezü. Bena solizü gure etxen ez düzü hala, aitetama gureak ez zütüzün hoiñez ebilten eta bedeziak erran ziezün behar züela ebili. ha! ez dütüzü berhala hasi.

"Besteak lanean ari eta gü paseün, ziozüen" gük erraiten

"Zer inporta dü! hoiñez eбилteak hun (on) egiten deizüe"

Ez dützü berhalakoan hasi, bena orai egün oroz egiten dizüe üngürüa, Xarrikota Gañean, bena ahalkez egoiten zütüzün osagarriaren (tako) hon delarik hoiñez eбилtea.

Gure etxen badakit ahalkea (lotsa) bazüela jenteen, besteak oro lanean eta hurak paseatzen.

Zer egiten düe etxetan zahar ezintüek?

Zonbait telebistari so. Amak ez dizü so egiten, aitak, bai.

Eta kartakan?

Ez hanbat. Amak hiru operazione üken ditüzü iganan urtean.

Eta irakurtzen?

Aita, bai "journal" a bai, bena libürü bat ezin behala begiak enhatzen (nekatzen) beizaitzo. Xaharren kontüa hori. Gero eбилten düzü bere semearen, gure anaiaaren ikusten, kabale ikusten hurak izigarri maite beit'tütü. Gero lapiak (untxiak) eta oilloak badititzü eta zerrailüak egiten (egurrezko hesiak), baratze animal (handia) badizü. Beti baratzeari etxeka ez düzü debeatzen..ordüan etxen aski enganio, paseüra joan gabe.

Amak ez dizü haizü baratzean aritzea, liliez baizik ez düzü oküpatzen, alegia amak ez düala baratzea ontsa egiten; ordüan amak bazterrak oro lili ezarten dititzü eta aitak dallearekin mozten ez direla jateko hun (on). Baditizüe beren oküpazione, gero hirurgerren adineko pasealdi horietan ez dützü eбилten, sobera herots (zarata) eta harahunaka (araonuntzka) beita, etxen hobeki direla hurak. Haurren etxetara ez dützü eбилten. Erraiten diküzüe "züek jiten bazide hobe, bena gü heben ontsa gütüzüe". Ez dützü nahi joan. Aita orano amiñibat beitütü betiko bere lagünak, lau lagün badütüzü, lau apaidü pürü egiten dizüe kanpoan, aldika..hola jeltitzen düzü, ama batere, batere.. Ama eztei edo komünianka delarik eta ordüan ere batere gustüan..ahalke batekin..beti berak erraiten dizü "udüri zaiola eztela besteak udüri.

5.3. Leoni AGERGARAI

(Zaharzaingoaren бүрүзagisa)
(Biografia)

Nola düzü izena?

Leonie Aguegaray.

Nun sortürik zira?

Sortürik nüzü Muskildin, laborari etxean.

Zer adin düzü?

Hogeitamazortzi urte..gazteago izan nüzü.

Eskolak nun egiten dützüzü?

Eskola txipia Muskildiko herrian, gero seigerren gelarat iganan nüzü Maulera Jeanne d'Arc eskolan..serorategi bat züzün, ondotik Saint François kolejora, eta baxoa (batxillerrato) azken urtea beno lehen ützi dit, ez beinintzan batere laket eta Ustaritzera joan nündüzün eta Uztaritzen bazüzün eta orano badüzü eskola bat, serorategi bat hura ere, eta ondolan etxekitzen zizüen eskola; han ikasi dit erizain eskoletan ari sartzeko behar zirenak oro, gero Parisera joan nüzü, 70.an eta hantik bi urteren бүрүan diploma üken eta hunat ützi.

Berhala hasi zira lan hortan?

Ez, lehenik Urrietan Parise ützi, Azaroan Mauleko ospitalean sartü nündüzün..Ospitale zaharrea, ez orai ezagutzen den hortan.

Eta han zonbat urteez egon?

Zazpi urteez egon nündüzün.

Eta hunat jin?

Gero "Cadre-infirmier" eskola egin nizün hots "Erizain бүрүзagi" izateko, Pauen eta urte bat iganan nizün han.

Gero Mauleko Ospitaleko бүрүзagiak ezpeinündian arra hartzen, Akizera (fr. Dax) joan nündüzün, han lana hatzaman eta lana züzün, orai egiten düdana ere bena zerbütüa handiago, soieñatzen (artatzen) gintitzün ehün eta hogeï (120) jente, beren etxeetan, beti jente adinekoak. Gero, sei urteren бүрүan jakin nizün Maulen egingei züela ber zerbütüa..presentatü nündüzün ..eta hebenko izatez..diplomak beinüntian aisa sartü..eta egia erran ez züzün beste nahiantik (irriparez)

Eta laket zira ofizio hortan?

Izigarri laket.

Ofizioaz kanpo badakit borontate hunez lan franko egiten düzüla, eüskal kültüra eta ekonomiaren alte?

Badakizü ene lana osotarzün batetan sartzen dela: Eüskal Herriaren bizitzeaz eta iraüteaz nüzü arrenküra, hortako bozketan abertzale bezala, eüskal abertzale bezala presentatü nintzala badakizü eta Muskildiko herri-kontseilüan sartü.

Geroago, jenteek galtegiten zitazüen zoiñ alderditako nintzan ete nik beti "abertzale" besterik deus ez eta peredikü handiak beno nahiago nüteala abertzaleek eskentzen dütien egintzak, egingeak eta haietan parte hartü, eta hartüko nüala, Eüskal Herriarentako.

Erizaharzaingaren lana

Zer da zure lana?

Alde gañetik gure zaharzaingoaren interesak D.A.S.S.-aren aintzinean erakutsi, hortarako urteko "rapport" a egin eta behar delarik, Bordele Paue artino joan defendatzera.

Gero gure arteko zerbütü hau ontsa joan dadin, langileen hunkia, eta lanaren aisatzea (errextea) txerkatzen dit.

Erran deitazüt бүрүзagisa eskola egin düzüla, bena artetarik langileak aldiatü behar dützüzü, ez?

Ez düzü jente soberakinik ez eta erilaguntzale bat eritzen delarik, aldikazalerik, nitzaz kanpo; bena oroek zerbütüa ontsa joan dadin, gure egitekoaz kanpo zerbait lagüngo a emaitera bortxatü gütüzü.

Mauleko zaharetxearen berri badakizüia?

Zonbakiak oro kontatzez? (Bai)

Ospitaleak:220 ohe

Zaharetxeak: 99 ohe, horien artean 46 ohe erientako.

Nunko dira Mauleko Ospitaleko jente horik, zahar horik?

Bo! Orotarik horra dützüzü (denetatik datoz). Ez dützüzü hüllanik ere (hurbildik ere) züberotar . Orai Oloru eta Pauerik igortzen ditzie. Lehen Ospitale eta klinika zelarik, ziberotarentako kartieleko jentearentako zütüzün.

Orai hain beita jente adineko Paueko alte hortan, Oloruekoek ez balinbadüe lekürik hatzamaiten, behar dizüe bestetarat joan; Manex kosta hori, jadanik, tiran düzü zahar hanitx, erretretatü hanitx beita Frantzia orotarik jinik klimata hon beita Lapurdin, Biarritz oroz gain. Maule, Paue ta Bia-

rritzen artean erdibidean beita, bi gaintitarik hartzen ditizü, atsulütoki behar beitütü bete bere oheak.

Manex eta ziberotar zombait badüzü bena haboroenak kanpotarrak dütüzü, bearnesak eta hürrünagokoak. Baliman erdia eüskaldün düzü, nahiz ez den zenbakirik egiten hortaz, Frantzian.

Zaharetxe horietan familiarik gabe dira?

Ez beti, bat edo beste badükezü familiarekin ez ontsa jiten, kexatürik, bena üsüago etxekoek ez beitütie beren etxen etxekitzen ahal..ezintürik..direlakotz, ezpeitütie behar dütienak oro etxen ükeiten ahal.: segürtantxa, jatekoak, erre-medioak..

Gero berak direnak ere badütüzü..bena etxekoen ofizioen arabera ikusi behar likezü.

Eta züen etxeetan edükitzeko zaharzaingoa hortan zer lanpide motako jentea da?

Erdixea beno haboro laborari, gure sistemak eüskaldün sistema zaharra orhitarazten beitü. Gero ofiziale-langiletan ere bai.

Bena jente zombaitek lanaren hütsartetik zaharrari soegiten balin badüe, fabriketako langileek ezin?

Maulen lehen bazüzün kostümako lege bat, norbait zahar ezintürik zelarik etxe batetan lana ützen ahal zizün bizpahirur hilabetez eta nausiak arra hartzen zizün, hori erraiten diküzüe zombaitek, eta orai ez düzü haboro ahal..ez zenirozü lana ützhilabetez eta berriz lanealat ützü.

Gero nahi badüe norbait pakatü zaharzain, zortzi orenez, karioegi (garestiegi) düzü, üzinan (lantegian) irabazten düen beno haboro behar düzü eman. Ordüan ofiziale ta langile zombaitek gure zerbütüxiak baliatzen ditizüe. Gero jente adinetakoa nahasirik delarik, ez düzü ützen ahal bera (bakarrik).

Soenatzen (artatzen) dütügün lauetarik hiru, beste jente adinetako bateki, beste xahar batekin bizi düzü, ordüan legegaren arabera, **etxe-lagüntzale** edo "aide-ménagère" baten züzena badizüe edo apaidüko lagüngoia edo etxeko baten zaharzain saria "tierce personne" delakoa. Sos gütierekin elkitzen dütüzü ezpeitüe sos hanitx despendiatzen, Igoten gük beno hanitxez gütilago.

Eta aberats familietan zaharrak etxen etxekiten ditzüe prefosta, ez? Eta ez dizüe deus ere galtatzen? eskatzen?

Galtatzen eta nola eta dohainik, segürtantxako kexek pakatürik..ez dizüe beren musatik (moltsatik) emaiten..ez..ez. Legea orentakoa bera düzü eta haiek ontsa ezagützen dizüe.

Ofizio orotako jenteak badütüzue familietan eta erietan?

Zaude ez ditit zenbakiak gogoan fitxa bat hartüko dit..erranen deizüt:

1. nik laborari
2. nik langile
3. nik ofiziale eta komerzio jentea
4. nik gütienik, Estatüko kargüdünak, zombait honat erretiratürik zahartzean.

Ospitaletik igaraiten dira artetarik zahar eri horik?

Bai, bai. Igaran urtean berrogei igaran zütüzün Ospitaletik, lau han egon eta besteak etxerat eta gure zerbütüxerat ützüli.

Eta gizon eta emazte?

Doblea emazte, gizon beno..emazteak zahartzenago beitirade. Ez dizüe gizonak bezainbeste gozatzen denbora llaburrez ahotik (jan, edan eta pipatzez) eta lüzarazten dizüe emazteek aldiz kasü egitez.

Zaharrek, ordüan, beti herabe (uzkur) dizüe Ospitalera joan?

Badakizüe Ospitalera joaiten badira, gazteagoan agitürik, bester ikusirik **beste mündü bat** dela, ez dütüzü kostumatürik, zaharregi dütüzü kanbiatzeko eta etxen dütien gaüzten oroen ützeko. Gük egün oroz bisita bat egin behar badeiegü, kasü egin behar dizügü gaüzten ezarteko, egün oroztako soeñen egiteko, den xoko txipiena behar dizügü egin, zeren eta dütien gaüzak oro, beren ixtoria, familiako orhitzapenak oro beren kanberan ditizüe. Gük hurak denak errespetatü behar ditizügü, ez hurak igitü behar, ez leküz kanbiatü. Etxen bizia oso berena dizüe.

Ospitalean aldiz ez dizüe berena, ezarten dizüe ohe xuri bat, mürü xuri, argi xuri bat, zortzi buttu (tekla), batean erizaintsa nahi badüzü zapatü behar düzü, bestean nahi badüzü telebista, bestean nahi badüzü eztakit zer argi piztü edo eho (itzali), hiru argi mota badütüzü. Horiek oro zaharrak lottzarazten.

Ikusi ditit jente adinetakoak, etxen eta gero ospitalean eta nihaurenatarik zombait eta ez düzü ber gaüza. Gük ere ez ginikezü inbeia (gura) etxetik orozbat joan; eta horiek zaintzen dütügün jente horiek ezagütü ditizüe bi gerla, etxen; eta gero eüskaldünen kostümaz, txipidanik etxen hiltzeko ideia hortara eginik dütüzü.

Erretretak (jubilazio sariak) lagüntzen düa etxen egoite hortan?

Bai eta sos düenek ere, ez dizüe beti gure beharrik. Egia düzü gure zerbütüxuan sosaren kontü hori dela lehen gaüza eta familiek aipatzen deiküela, eta erraiten dizüe "Gük ez dizügü xahal baten saria emaiteko hilabete oroz ospitaleko pentsionearen pakatzeko" zeren eta, orozbat Ospitalean egon nahi dena, "long séjour" egonaldi lüzean sartzen düzü eta beti erretreta beno haboro kostatzen. Hanitxetan, erretreta 3.000 libera düzü eta "egonaldi lüzea" 7.000 libera eta hori hilabete oroz, zeren eta hilabete oroz berritzen den galtoa beita. Familia hanitxek ez dizüe ahal, gero Ospitalean ükeiten dütien arabera direla egonaldi lüzeko kostü horik: badizüe jatekoa, ontziak eta arropak eginik, bazterrak xahü, erremedioak, soeñak..oro baditizüe.

Sosik ez badüe, haleikere, Ospitalean sartzen dütüzü ez badüe familiako arrenkürantik?

Bai ordüan "gizarte lagüngoia" edo "Aide Sociale" hortan sartzen dütüzü, harek pakatzen eta departamentüak ehüneko ehün emaiten. Gero, jente horiek etxe edo lür balin badüe ospitaleak horik baditizü.

Gero D.A.S.S.ak saltzen ahal ditizü. Gero ahal badüe haurrek behar dizüe pakatü, "obligations alimentaire" badizüe. Haur batek parte osoa emaiten dizü, bost balinbada bakotxak bostgerrena; ez dizügü gogozkatü, oror eragitzen ahal ziküzü, aitetamentako düzü, bena horra düzü seme alaber eta aski ezpada arrahaur (llobaso) delakoetara joaiten düzü. **Alkar lagüntzale gizartea** gütützü "société solidaire", bena batek emaiten balinbadü besteak behar düzü ere, tha-

patü zorra, bena baremak eta heinak badütüzü, oroek ez dizüe bardin emaiten: batek etxearen zorra balinbadü, ez dikezü hainbeste emaiteko, gero haurren arabera ere egin litezü, haur txipien arabera eta hola.

Hebengainti Ziberoan badüzü euskaldün berezitarzün bat, seme gehienak, hartzen düalarik etxea sinarazten dizü, eztakit nola, bena aitetamen zahartzea bere gaiñ hartzen dizü; eztakit nola ezkiribatürük den frantsesez, bena gük hala erraiten dizügü eta hortarako bere parteaz kanpo, beste laurden bat', beste kart bat hunkitzen.

Gero "beregaiñ" hartze hori zer heinetara heltzen ahal den, ezintürük balinbadira, ezpadira haboro jeikitzen ahal, ahal düeno etxen etxekiko ditizüe.

Eta Basabürüan deuse? Ezerez?

Ez, han Margarita, hanko erizañak erran ziküzün bere postaren etxekitzeko, erizain lanaz kanpo behar züala gük egiten günian lana ere egin, han. Harek pakarazten, nahiz eta jenteeek üsü % 100a badüen.

Eta Mauleko Ospitalea?

Orai osoki üngüratü düzü, orai departamentüko D.A.S.S.aren eta Bordeleko C.R.A.M.A. (Caisse régionale d'Assurance maladie) horien esküpean düzü.

Lehen Mauleko Ospitalea ez züzün hola; aspaldidanik bazüzün serora etxe bat Nevers-eko serora grisena, eta haiek errezibitzen zitizüen adin orotako jente gehitüak, ez oro adineko, ezpeitziren ontsa бүрүtik, eta horik oro soeñatzen zitizüen; beren bizi orotako hor sartzen zütüzün (ziren). Jentek, gero ospitale hortara zernahi müble ekarten zizüen kamenet (armario), mahain, bizia hor ürrentzen zizüen.

Serorek behiak, baratzea eta holako bazizüen, eta Mauleko hiriak eta fededünek eman sosak Ospitale horren joanarazteko. Eriek ere lagünxetan zizüen, lanean.

Eriek zernahi bazizüen Ospitale hortan, goiz oroz meza. Karitate zerbütü bat züzün.

Noiz ürrentü da, Ospitale mota hori?

Serora zonbait egon düütüzü lehen aldi batetan, nik biga ezagütü ditizat, orano, han nintzalarik Mendikotako Axigar bat bazüzün, eta Lúxia Urdiñarbetarsa, Berterretxe izenekoa. Azken biak, zütüzün, bena ez serora grisetarik, jinik bestetarik,

Eremütsak baizik ez zütüzün lehen ospitalean sartzen, frantzimantek "indigent" deitzen dütienak. Jente horiek ez zizüen beren бүрүaz axola, familiak baztertürük, edo familia gabe, etxea zerratürük; eta familiarekin ez ontsa jiten, eta holako.

Badit laneko lagün bat, orai erretretan (jubilatua) düzü, Kattalina Bagadoi, bena sartü züzün seroren denboran hamazazpi urteetan: serorek ordüan egiten zizüen goizeko, zerbütüa, arrestirikoa, gaükoa eta gaü osoa behar balinbaze, üngürüka, eta erremediatzen..orazionez ere soeñatzen, ezpeitzen beti erremediorik.

Nik ezagütü - serorak joanik - Ospitaleko granetan (sabaletan) zernahi müble mota, jenteeek Ospitaleala ekarririk eta han ützirik. Seroren aberastarzünak zütüzün..saldürük izan zütüzün, Medina züzendariaren denboran; gero izan züzün eztabada, bena saldürük izan zütüzün.

Ez düzüe züen zerbütü hau handitzen ahal?

Ahal dizügü galtatzen, bena hortakoz, aurten egiten badügü galtoa, hebertik bi urte dizügü ükenen.

Zerbütü hunekin Segurtantxak irabazten dizü ezta hala?

Zonbaitek erraiten dizüe baietz eta besteek ezetz bena gük hunkitzen dügüna, hartzen dügüna, ehün eta hogeï ta hamar libera egünkal, bena Ospitaleak hortaz kanpo, beste 7.000 galtatzen ditizü "long séjour" horrentako eriek edo familiek eman behar dutienak hola hilabetean: 3.900 libera, etxen egoitez hilabetean: 3.900 + 7.000, ospitalean.

Holaxe bazütüzün senhar emazte eli bat, üzinan (fabrikan) erauntsirik beren bizi orotan, beren lan urteak eta urteak jarraikiz, heltü zütüzün etxe baten egitera, eta mementoa jin züzün gizon harek behar züala Ospitaletik igaran..bena han egon eta baratü nahi bazen, bere etxea hipotekatü (bahitu) behar zizün hori zizün hortarzün baktotxa eta ezin paka 7.000 libera.

Hortakoz jente hanitxek zaharren etxen begiratzea haütatzen dizüe, oroz gaiñ beren biziko izerdiarekin Mauleko langile hanitxek beren etxea eginarazi beitüe eta begiratü nahi dizüe. Gero jente heek hiru haur bazitizüen, bena familiatürük eta erran zizüen ez dizügü holako kargarik eman nahi ihori, ez düütüzü aisa etxen egoiten, bena heltzen bai doidoia. Bizi orotako sakrifizioa hola üztea gaitz düzü. Langileak badakizü zer kostatü zaion etxe baten egitea bizi orotan.

Laborari familietan eta hola, kostüma handiago düzü, gazte denboratik aitaña ta amaña etxen ikusi beitütie zahartzen..jarraikitzen düzü orano üsantxa gisa (ohitura moduan). Gero laborari etxeak aski handi düütüzü eta zaharrek ta gazteek beren gainti bi egongia berhex egiten ahal dizüe., bena berrogeï urte düenek, hirutanhogeï urtekoekin ez düzü agitzen ondoko jente aldian düzü agitzen gazteagotan, kanbio, hori berhexte hori.

Zonbait aldiz ere gazteak laborantzari lotü nahi düenean lagüngoia badizüe beste etxe baten egiteko ere, eta lege berriak euskaldün zaharren sistemaren desegile düzü, gero lagüngoia hori aski dizüe berek barnetan egiten beitüe lan hanitx eta ez ofizialer emaiten.

Gük soeñatzen dügün jenteetan ez düzü agitzen, ez ondoko jenerazionean baizik eztüzü holakorik. Bestelan ere, zaharrak eta gazteak ber ofizioko balin badüa badüe eta lanaren parte bat etxen egiten, aisago ziezü zaharren begiratzea. Hala düzü laborari eta ofiziale zonbaiten etxen, bena orai, geroago eta haboroago, ez düzü bizpahiru jenerazione ber etxean ikusten, orai baktotxak badizü bere habia - salbü eta laborarietan - erran dügün bezala, horietan ere zahar-gazte berhexte hasten düzü.

Gero aitzinetik ere bi etxe zelarik, zaharrak karrikako etxeala jaisten zütüzün eta gazteak bazterretako etxau batean egoiten.

Usantxak haleikere zerbait ikusteko dizü?

Bai euskaldün üsantxa zaharrez, berrogeitahamar urteez goiti düen euskaldünen normal hatzamaiten dizüe zaharrekin biziitzea eta ontsa igaraiten düzü.

Agitzen dea xahar bat bera delarik beste xahar bati jüntatzea? Aurride edo arrotz batekin biziitzea?

Ez hanitx, baktotxa bere etxen egoiten. Balio likezü kontaktzea zonbat baden bena agitzen ziküzü, norbait hirian lanean erauntsirik, senaremazte eli bat eta gero erretiratzen hunat, adin handian, 70 urteez goiti bata ontsa delarik beste zaintzen, soeñatzen.

Pettiarrean pürü arra jiten direlarik ez dütüzü, orai, etxon-
doala edo anaie baten etxera erretiratzen beren alde planta-
tzen dütüzü.

ANALISI OROKORRA

1. Etxe-sendaketa

Nahiz hogeitasei urteetako neskatila batek bazekien orai-
no etxe-sendagintzaz zerbait, ageri da jakituri horiek galtze-
ra doatzila ta segurantzak sekulako kalteak egin dizkiola,
orain edozein, min, gaitz edo ezineria txipiarentzat ere sen-
dagilea deitzen baita.

Halere gizarte mailak bereizi behar dira, ezen jendea
eskolatuago eta ez du nola nahi medikua deitzen, eta medi-
kuez kanpo medikuntza eztiak onartzen ditu. Egia esan ez da
ez langile, ez nekazari asko ikusten homeopatia ta akun-
punktura sailetan. Gero modak ere badira, herri-sendakun-
tzaren atal bat sendotu dezakena eta farmazeutiko den
Larrègle jaunak esan digu nola baratzetan, bide ertzetan
sortzen diren landareak farmazietan erosten diren. Tisanen
erabilera hori eraberritua eta kaletik etorria ari da pixkanaka
baserrira itzultzen, halaxe ez da etenik erabileran nahiz izan
den askotan etena ezagutzen, aintziña berek egiten, biltzen,
legortzen baitzituzten belarrak, laborari etxeetan.

Euskal Herritik kanpo ibili diren sendagileek diote
Frantzia behera non nahi, sasi-erremedio eta errezeta
gehiago dagoela Zuberoan baino eta etxeetan argizai bene-
dikatu eta uraz kanpo ez dela otoitzik erabiltzen sendaketak
egiteko (hori petrikilloek egiten dute)

Urak et iturriak.

Aurretik erran bezala, besterik ibili baita lan hortan gure
aurretik eta denbora berean talde bat hortan ari, nire ekarpe-
na izan da, etnologiaren aldetik galtze edo berritze delakoan
aipatzea.

Gutti edo aski Gamereko urak bainu bezala ez dira gehia-
go erabiltzen, bainutegia jatetxea eta famatua baita bestalde;
baina Ahüzkiko urak berpiztu dira arrazoin askorekin Irratitik
bildu eta egunkari batetik hartutakoek darakusatenez, lehe-
nik artzain jai ederra egiten delako Andere Dena Mari egune-
an, bigarrenik han zeuden lau etxe ta etxanoak eroriak izan
arren, ostaturain berri batek hotela egin du eta Zuberoako
sindikatak iturria konpondu. Ur hori giltzurrintzat ona da;
jendeek leku berean edaten dute eta jerrikanetan eramaten.

Zuberoako sindikatak Leixtarreko Jon Dane Johane eta
Mauleko Jon Dane Petiri iturriak berritu dituzte, nahiz ez
diren osasunerako hanbat erabiltzen.

Ixkilima iturria, Santa Grazikoa eta bere pagan ohitura
kontatu digu Allande Elixagarai-ek gauaz hara joan behar
baita, jenderik ez eta batikbat gaturik topatu gabe, gero ixki-
lima (buruorratza) urera botatu.

Iturriekin eta osasun urekin bukatzeko Zuberoako bede-
ratzi iturri nagusien berri ematen dugu.

4. Apotekari batekin hizketan

Gure farmazia gizona euskalduna da, beti euskaraz ari
dena, jendeekin, ez aspaldi jubilatua, maiz Atarratzeko karri-
ketan paseatzen ikusten da. Berak dionez eta medikuntza

eztiak, sasi-sendaketak aipatzen diozkadanean, ez du maila-
katzerik egiten, fakultateko sendaketekin

1. Denetan osasunaz baino diruaz arduratzen diren "senda-
tzaileak" ugari direla, orain.
2. Sendakuntza eztiak baldin ez badute gaitzetan eraginik
ez dute jendea pozoindatzen.
3. Asko estimatzen ditu ezur zuzentzaileak eta uste du, pla-
cebo-ren moduan, larru sendatzaileen komediek gaixoe-
tan eragina dutela.
4. Berak uste du sendakuntza eztiak modan direlako, ba-
tzuk baratari eta lapur izan arren, laisterregi eta azalkiegi
ikasitakoekin kalte egin lezaketela.
5. Ez du uste Homeopatia, placebo baino gehiago denik
"uraren memoria" probatu arte.
6. Sendagailu gehiegi hartzearen kalteak aipatzen ditu.
7. Uztaritzeko petrikilloak, izter arteko ekzema, eta zango
bizkarrean (azalean) beste min bat galerazi zizkion, baina
eman zituen pomadak, aspaldiko errezetak ziren ez sor-
gin erremedio (milgorra, sufre, iodalkol). Bere balorape-
nean bazter sendakuntza guztiak mail berean ipintzen
ditu "sendotzen dütten ber".
8. Adibide batekin azpimarratzen du jendeen gaitzen eza-
gutzeko, aurretik zer lan egiten duten, nola bizi diren gal-
detu behar zaïete: lanak sor baidezakete, nerbiotako
larruetako minak, baita naski biriketakoak ere, errautseen
bidez, irin eta zahien bidez.
9. Bere garaian higieñez arduratu eginda aholkuak emanaz
eta urak kontrolatuz.

Gorotzez (zimaurrez) eta lurrez kutsatu janarien eta esku
zikinen bildur handia zeukaten aintziña ere.

5. Medikuren salaurrean.

Hor salaurrean bakarrik zerbait ikasi dut sendagile horrek
ezezkoa eman baitu nere galdeketeri egun hartan denborarik
ezaz eta geroago egun bat hitzartu ondoren, alferretan era-
karri.

Sala hortan gehienik aipatzen zena, zen hain gazte gutti
izan eta ixtripuetan bizia galtzen dutela; gero alargunsten
(andere-alargunen) depresioak aipatu ziren eta nola mediku
batzuek sendagailuz eta loeragingailuz emazteak zozotzen
eta gaixotzenago dituzten, erremedioak utzita sendotzen
direlarik.

6. Mediki batekin hizketan.

Remi Akozeberri gizon gazteago hunek, borontate onez
inardetsi dit; nahiz ez duten utzi Zuberoan lan egitera, eta
agian akupunktura egiten duelako, Oloronen Euskal Herriko
mugan ari da lanean, baina gaixoen erdiaz goiti euskaldunak
ditu. Barearen okerduraz eta Urberoez idatzi egin du.

- 6.1. Sendakuntza eztiatara itzultzen da jendea, seguran-
tzean "dohan-itxurak" sendagailu gehiegiren hartzera
eroan ondoan.
- 6.2. Ez da bakarrik gehiegi hartzen dutelako baina batzutan
nola nahi, eta sendagailu zaharkituak eta zaharrak,
gaitza berriro agertzen denean erabiliz, pozoatzen dire-
la polliki polliki.
- 6.3. Beretzat sendakuntza eztiak, gaur, fakultatetan batzu-
tan sendagileek ikasten dituztenak dira.